

# LEZO

3

KULTUR BATZORDEAREN ALDIZKARIA

— IRAILA

1989



Aldizkari hau kaleratu ahal izan da, LEZOKO Unibertsitateko UDALAK eta IBERDUEROK emandako laguntzari esker.

Esta revista ha sido financiada por IBERDUERO y el AYUNTAMIENTO de esta Universidad de LEZO. Eskerrik asko bioi !.

GUSTAVE COLIN-en KOADROA

«Dörflicher Stierkampf auf der Plaza Mayor vor  
der Basilica del Santo Cristo in Lezo» (1885).

# Hitzaurrea



Ikus dezakezuenez LEZOk aurrera darrai, aurrera eta sindurra berriekin. Oraingo honekin hiru dira eman ditugun urratsak, askorik ez dira egia esan, baina pixkanaka pixkanaka ari gara bidea urratzen, eta hauxe zen aldizkariari jaiotza eman genionean geure buruari planteatu geniona: lezoarrok Lezoz idaztea, eta euskeraz baldin bazen hobeto. Ondotxo bait dakigu Euskal Herri osoaren etorkizuna euskeraz izan eta idatziko dela.

Ez dugu gure Herriaren kultur berreskuratze garapenatik kanpo egon, eta nazio berreskuratze hau, gure ustez, auzoz auzo eta herriz herri eman behar denez, hauxe da lezoarrok gure aldetik jarri nahi dugun hondar alea. Alez ale egiten da hondartza, tantaz tanta erreka, eta herriz herri, auzoz auzo berreskuratuko dugu aurki, azken ehun urtetan lapurtzen eta ezabatzen saiatu diren euskal arima.

Danok dugu tokitxoren bat kultur berpizkunde hontan. Bakoitzaq dakien eta ahal duen neurrian. Guk lerro hauetatik dei egin nahi dizuegu papera har, zirriborra eta honera bidal dezanuen, honela denon artean LEZO hobeago bat egin dezagun. Adiorik ez!

## EDITORIAL

Como podéis ver, LEZO sigue adelante con nuevas firmas y con nuevas colaboraciones. Con éste son tres los pasos que hemos dado hasta ahora, y a nuestro entender poco a poco se va perfilando el camino que al dar en su día vida a esta revista local nos planteamos: el que los lezotarras escribiesen sobre Lezo o sobre cualquier otro tema, y a poder ser en euskera. Pues de sobra sabemos que el futuro de Euskal Herria será y se escribirá en esta lengua.

No queremos por otra parte mantenernos al margen de ese esfuerzo sobre humano que día a día, minuto a minuto se está realizando para recuperar nuestra cultura nacional, y salvarla del magnicidio al que tantos le han querido condenar. Que LEZO sea nuestro granito de arena en este gran proceso popular de recuperación de nuestra alma euskérica.

Todos podemos colaborar de una forma u otra. Desde estas líneas os invitamos a que cojáis el papel y el bolígrafo, dejis rienda suelta a vuestra imaginación, recuerdos, proyectos..., y nos lo enviéis a esta redacción, para que así LEZO sea cada vez más un trabajo realizado entre todos.

«LEZO» Kultur Aldizkaria

Udaletxea

# Aurkibidea



HITZAURREA (Editorial) ... ... ... ... ...	1
<b>HISTORIA</b>	
JOAN IÑAZIO IZTUETA ETA LEZO. Karlox Barrentsoro ... ... ...	3
PILDAIN, UN VASCO DE CUERPO ENTERO. LEZO, PATRIA Y CUNA.	
Agustín Chil Estévez « <b>Un obispo para una época</b> » (1987) ... ...	5
LEZO HAUNDIA ETA AINTZINAKO BESTE LINAJE LEZOARREN IN-	
GURUKO GERTAKIZUNAK. Karlos Etxezurieta « <b>Gaintza» «Lezo</b>	
<b>herriaren ikuspegি sozio-ekonomiko-historikoa»</b> (1983) ... ...	8
<b>GIZARTEA</b>	
TOMAX MARITXALARREN OROITGARRIZ. Joseba Presentación Ba-	
randiarán ... ... ...	10
EVOLUCION DEMOGRAFICA DE LEZO. Antxon Agirre Sorondo ...	11
<b>KULTURA</b>	
GAURKO LEZOAR ALDIZKARIGINTZA. Zabarre ... ... ...	14
LEZOKO KALE IZENDEGIARI BURUZKO ZENBAIT ADIERAZPEN. Jo-	
seba Presentación Barandiarán ... ... ...	17
LEZOKO SANTO KRISTOREN ELEIZATXOA / LA CAPILLA DEL SAN-	
TO CRISTO DE LEZO. Frantzisko López Alen ... ...	20
<b>SAIOAK</b>	
LEZOKO HITANOAREKIKO HURBILTZE LANA. Zabarre ... ...	22
O GALEUZCA. Xose Estévez ... ... ...	25
IKURRIÑA, ARRANO BELTZA ETA NAFARROAKO KATEAK / LA IKU-	
RRIÑA, EL ARRANO BELTZA Y LAS CADENAS DE NAVARRA.	
Zabarre ... ... ...	27
<b>LITERATURA</b>	
LEZO 3.025 URTEAN. Karlox Barrentsoro ... ... ...	30
HARRIAK MINTZO BALIRA. Edu Zabala ... ... ...	34
OLERKIAK. Joxe Joan Ugalde « <b>Munttar</b> » ... ...	37
SOÑU, JAIZKIBELKO BASATIA. Antton Valverde « <b>Aialde» Zeruko Ar-</b>	
<b>gia</b> (1958) ... ... ...	38
ARRANOA. Usakume ... ... ...	40
JAIZKIBELGO TXORIA. J. Agirretxe ... ...	41

## Joan Iñazio Iztueta eta Lezo

Gure literaturan asko eta asko dira euskal letron esparrua urratu dutenak, Etxeparengandik hasita gure gaurko idazleenganaingo. Zoritzarrez gaiak beti berdinak edo berdintsuak izan dira, erlijiozko gaietokirik zabalena hartu dutelarik. XIX. mende hasierako zaldibiar idazlari hau guztiz originala dugu alde honetatik, bere lanak euskeraz egin diren lehenengo etnografikoen artean koka bait ditzakegu.

Joan Iñazio Iztueta 1768. urtean jaio zen, Gipuzkoako Zaldibia herrixkan, oso sendi apal batetan. Eskola gabekoa bezetik, gazte garaian dantzari iaioa izandakoa eta geroxeago dantza-taldeen antolatzale zuhur eta amorratua. Badirudi Donostia kartzelako zuzendaria izan zela urtealdi labur batez, eta bertan beste denboraldi motz batez espetxeraturik egon zela ere. Egia esan, oraindik ez dakigu zergatik. Hala ere, bere bizitzaren denborarik gehiena Zaldibin eraman zuen, baita bertan 1840. urtean hil ere. Bera da apaizez jositako mende hartako literaturan, apaiz ez den idazlerik bakarrenetako.

Bere idazlanak oso sonatuak izan dira, beraietan Gipuzkoa, Euskal Herri eta euskal ohitura eta bizimoduari buruzko oharpen eta albiste paregabeak ematen bait dizkigu. Bi dira Iztuetaren liburuak: «GUIPUZCOACO DANTZA GOGOANGARRIEN CONDAIRA EDO HISTORIA» izeneko dugu dudarik gabe euskal dantzei buruz ezagutzen dugun lehenengo euskarazko liburua. Eta bigarrena: «GUIPUZCOACO PROVINTZIAREN CONDAIRA EDO HISTORIA» izenekoan garai hartako testigantza bizia agertarazten digu, gure historiari buruz makina zehazkizun emanez.

Hala nola, Gipuzkoan garai hartan zegoen euskaldungoari buruz egiten duena. Berak dioenez, Gipuzkoan 1799. urtean, 120.000 biztanle zeuden, eta hauetatik 100.000 ziren euskaldun, gehien gehienak euskaldun hutsak gainera. Beste 10.000 inguru, etorkin edo mestizoak zirelarik.

Edo berak bizi izan zuen lehenengo karlistadari buruz kontatzen diguna. Ikus dezagun Zumalakarregiren gainean esaten diguna:

«Erabaqui naiean itzpidea garbi,  
esanaz eta esaten aspertzen ez naiz ni;  
Mundu guzti guztiac orain eta beti,  
gogoan izango du Zumalacarregui.»

Garai hartan ere, zuhaitz botatze haundia zela eta, beste honako pasarte adierazgarri hau azaltzen digu:


«Zuaitzac aizcorari diola beldurra  
sinistatu bear da, ez dala guezurra;  
Baldin artzen ezpada demporaz ardura,  
agur gure basoac, ta agur ezcurral!»

Gipuzkoako historiari buruzko liburu hontan ere, eta banan banan gainera, gipuzkoar herri guztiak ikuitzen ditu, beraiei buruzko era guzietako zehazkizunak emanez: biztanlegoa, zabalera, kokapena, errekurtoak, mendiak, iturriak, ibaiak... Lezori buruz, honako hiru erreferentzia hauek egiten ditu:

### 1.— LEZOKO HERRIARI BURUZ

«Lezoco Errria ondartu izan dute anitz bertan jaiotaco seme arguidotarrac gudaco eguiquera-eten ez ezic, letra-etaco lambidean ere. Don Juan Martinez de Lezo, Eliza bereco Erretorea, izanic guizon valerosoa eta jaiot-erriaganontz amodiozco naitasun bero bici gartsuarequicoa, mila bosteun ta ogueigarren urtean, France-sac Ondarribi-alderontz azaldu ciradenean, Erri inguruco gendea sutumpadiarequin arturic, Olearsoco muñora ego, ta eraso izan cion etsaiari portizqui, baita atzeratu ere calte andiac cituela.

Don Domingo de Lezo, Cuzcon Obispo cegoela ill zan milla bosteun berroguei ta amabigarren urtean. Don Lope Isasti, Beneficiadu Eliza berecoac izcribatu izan ceban Provincia Guipuzcoaren condaira, milla seieun oguei ta bostgarren urtean, eta arquitzen da oraindic moldizquidatu bagne, ceña amar onza urre pagaturic



eraman izan ceban Madrillera bertan bici izatez cegoen Euscaldun ernai batec milla zortzieun ogueita amairugarren urtean. Don Francisco de Gainzac izcribatu ceban Irun-aranzunena, ceñari deitzen dion bere Erria, jaioa dalaric Lezon, milla seieun berroguei ta emezortzigarren urteco azaroco illaren zazpigarren egunean; beraren eguitadea moldizquidatu zan Iruñean milla zazpieun oguei ta emezortzigarren urtean. Erru andico Juanot de Villaviciosa nagusiena izandu zan Provinciako Escuadra baten General icendatua milla bosteun lauroguei ta bigarren urtean Francesen contra irteteco. San Miguel-co Ugartearen urrean eguin zuten batalla, eta Juanot garaillari ill zan ondra andian bi bala alcabuz-ecoquin. Erregue Jaunac saristatu ceban beraren valorea onen seme Don Miguel-engan, ceña iritsi zan Almirante izatera. Orobak izan ciran Juanot chiquia ta Juanecho, guztiak lenengoaren ondorengoak, beste gueiagorequin itsasguizon ernai azcar gudari gogorrac.»

2.—Ondoren gipuzkoar ibaiak banan banan eta Bizkaia aldetik hasita, agertzen dizkigu: Deba, Urola, Oria, Urumea, Oiartzun edo Lezo eta bukatzekeo Bidasoa. **OIARZUN EDO LEZO IZENEKO IBAIARI BURUZ HONAKO HAU ESATEN DIGULARIK:**

«Bostgarren Ibaia. Guipuzcoaco bostgarren ibaiari deitzen zaio Oyarzun, icen onetako Erriaren mendietan jaiotzen diran itur uretatic eguiñeratzen dalaco Guipuzcoaren mugapean. Mendi oetatic jachitzen da bere Errira, eta onen ordeca celai luceac ondo ureztaturic bera escurontz lagatzen debala, igarotzen da Errenerteria, ceñetara iritsi ezquerrotic ugarotu ditequean errazquiró; Erri au ezquerrerontz, eta Lezo escuitara utziric aurqueztetzen da Pasaya bien erdian; non eguiñeratzen deban itsas-arte bat, bai ta edocein ontzidi-entzaco suple dan portu segurua ere; eta escuitara lagaric San Juan-goa, eta ezquerrerontz San Pedro-coa, memperatzen zaio itsaso andiari emequiró pozquita bete betean. Portu aomen andico oni orain Pasayacoa esaten zaion bezala, anciñaeran, alic eta XV-garren eunquida iritsi arte-rañoco guztian, deitu oicitzaion Oyarzungoa. Batzuc ifini diote ibai oni icen berria LEZO, eta anciñaco izcribuetan arquitzen da esaten zaiola LEZO baino gueiagotan OYARZUN. Eguiazqui bacuscu bada argui eta garbi, ibai au sortzen dala Oyarzungo mugapean munduaren asieratic; baita ere, bertaco erribera luceac ongarrituaz Errenerteriako erribera igaroric Lezora jachitzen dala ausarqui, eta alere ¿ez da gauza arrigarria ibai oni ez opa izatea icen egoqui gozo ain bere berequia? Beste gauza gueiago ere Oyarzungo Erriac anciñaeran beretzat ezagutzen citubanac, icusten dira orain escualdatuac bidez edo bide bagne; eguin izan diranac onelacoen jabe, berenac dituztelaco ustean oi daude; bañan mendi ta ibaiac beti ezagungo dirade.»

3.—Beste atal batetan, gipuzkoar iturrien gainean mintzatzerakoan, **HONAKO HAU KONTATZEN DIGU LEZOKO ITURRIEI BURUZ:**

«Lezoko mugapean jaiotzen dira iturri guezagozo anitz, ur garbia iori ematen dutenac; oetatic iru oberenetakoac arquitzen dira Erriaren inguruau guertu chit, deitzen zaiotenac, Lacosta, Puntal, eta Olazar; berac ematen dituzten uraquin eguiñeratzen dira ordu erdiko bidastian bost erreca, deitzen zaiotenac Zaroizar, Gainza, Huronecoa, Bincuda, eta Molinos; ceintzuc batutzen diran Lezoco ibaira. Ibai oni esan oicitzaion anciñaeran Oyarzungoa, Ayamendiaren erroetan jaiotzen dala.»

Lezok badu bere historia, berezkoa, berezia eta bitxia. Agian oraindik eta neurri haundi batetan aztertzear dagoena. Baditugu gure historiari buruz idatzitako zenbait liburu, Leandro Silvanek 1975.ean eta «LEZO» izenburupean argitaratutako; eta Karlos Etxezurieta lezoar semeak 1984.ean eta «LEZO HERRIAREN IKUS-PEGI SOZIO-EKONOMIKO-HISTORIKOA» izenarekin idatzi zuena, baina bi hauek kenduta, ezer gutxi daukagu gure herriaren historiaren gainean. Horregatik oso eskertzekoak dira, Iztuetak XIX. mendean gure herriari buruz idatzi zituen aipamen hauek.

Bi liburu hauez gain, Iztuetak badu bertso sail eta polit bat, bere maiteñoa zen «KONTXESIRI» idatzitakoak, gure amodiozko bertso onenetakoenean artean ditugularik. Baina Kontxesiz gain, Iztuetak bazuen ere bestelako maitasuna, Euskal Herri osoa orokorrean, eta maila apalago batetan, Gipuzkoak, bere herrialde mai-tea. Nolabait amaitzekeo beharra dagoela eta, ikus ditzagun Gipuzkoari luzatu ziz-kion honako bertso adierazgarri bezain sentikor hauek:

«Guipuzcoac baditu semeac ugari,  
jaquin izan dutenac equiten lanari;  
eracutsiaz garbi mundu guztiari,  
cer nai gaitan dirala buru ta guari.»

KARLOX BARRENTSORO

# PILDAIN un vasco de de cuerpo entero

## LEZO, patria y cuna

La patria y cuna del doctor Pildain es el pueblo de Lezo, pintoresco rincón guipuzcoano enmarcado por el monte y el mar, que inseparablemente unidos forman un apacible regazo donde se asienta este recoleto municipio y universidad, de la provincia de Guipúzcoa; diócesis y partido judicial de San Sebastián, del que dista unos ocho kilómetros.

Se encuentra situado a la sombra de la ladera meridional del rectilíneo Jaizquíbel —dosel, cobijo y defensa— y a orillas del pequeño río Oyarzun, cerca del brazo de mar que sube del bocal del puerto de Pasajes, en la zona industrial de Rentería.

Lezo es lugar agradable, sano, algo alto, de buenos aires y espléndidas vistas dignas de ser contempladas. Los setenta caseríos esparcidos por la sierra acrecientan la belleza del paisaje, y es una delicia recorrerlos paseando o trepando por los numerosos senderos trazados en la falda de su monte.

Es centro agrícola, abundante en huertos y prados, rico en árboles de distintas especies, singularmente manzanos, que dan vida a una notable industria de madera y producción de sidra.

«La referencia más antigua que se tiene de la población de Lezo es el privilegio de términos concedido a Fuenterrabía por el rey Alfonso VIII, el de las Navas de Tolosa, en 1203, en que hace donación de esta ciudad a Guillermo Lazón y sus compañeros, para que fuesen sus vecinos.

»Por tradición se dice que este Lazón era el dueño de la casa Lezo-aundia, y sus compañeros son, sin duda, los propietarios de las demás casas. Desde aquella época, Lezo perteneció al distrito municipal de Fuenterrabía, y era una aldea de ésta con título de Universidad, sin tener jurisdicción propia, sino tan sólo pedánea de los alcaldes de dicha ciudad. Tenía, sin embargo, sus términos propios, amojonados y separados de Fuenterrabía, y su administración económica independiente, compuesta de un capitán de paz y otros dos regidores, con el depositario de fondos, que llamaban copero.

»Iriún y Pasajes se segregaron de Fuenterrabía después de muchas instancias, pero Lezo ha pasado a ser municipio independiente sin realizar ninguna gestión al efecto, produciéndose esta unidad geopolítica autónoma al aprobar las Cortes de Cádiz la ley de términos municipales en el primer tercio del siglo XIX, rompiéndose con ello todos los vínculos anteriores.»

Las gentes de este pueblo, por los años 1597 y siguientes, estuvieron muy relacionadas con el mar, y se dedicaron a un tráfico mercantil marítimo que estuvo protegido por importantes privilegios reales. En el brazo de la bahía de Pasajes que desemboca en Lezo, existieron unos astilleros en los que se construían navíos de alto porte, como la famosa nao capitana de la Armada del Océano «Nuestra Señora del Pilar y el Señor Santiago», en 1597, en la que el rey Felipe V hizo su entrada en Lisboa. Pero estos astilleros, años más tarde, se paralizaron por completo.

El puerto de Lezo, antiguamente, tenía más fondo que hasta hace poco y llegaban a él bajeles de 70 a 80 toneladas. En la actualidad, con los dragados llevados a cabo, y con las nuevas instalaciones portuarias pueden entrar barcos de hasta 180 metros de eslora y 30 pies de calado.



Lezo ha conservado viejas casonas solariegas de piedra y timbradas frecuentemente con grandes y señoriales escudos de armas, y una casa-torre que llaman el palacio, porque en él solían descansar los obispos que iban de visita.

Edificio destacado es la Casa Consistorial, de estilo renacentista, que ostenta en su fachada el escudo de la Universidad de Lezo, en alto relieve. Noble y espléndida es la iglesia parroquial, dedicada a San Juan Bautista, que data de 1557, de estilo ojival y de piedra sillar, de única nave, muy amplia y de gran altura, por lo que sus muros están reforzados exteriormente con sólidos contrafuertes. En una de sus seis capillas, la que está en el muro lateral opuesto a la puerta accesoria, se encuentra la pila bautismal, donde fue bautizado el obispo Pildain, cerrada por una artística verja de hierro forjado.

Especial reseña merece la iglesia-basílica, en la que se venera el famoso Santo Cristo de Lezo, muy popular y de gran devoción en toda Guipúzcoa. El Cristo es muy visitado durante todo el año y objeto de innumerables peregrinaciones de todo el País Vasco. Esta devota efigie, según tradición popular, fue traída, en el siglo X, por San León, obispo de Bayona, diócesis a la que el pueblo pertenecía entonces. También se afirma que fue hallada a orillas del mar, por lo que las gentes marineras le tienen una especial devoción y la saludaban, al pasar sus navíos por las inmediaciones de la ermita, con salvas de veintiún cañonazos.

«Es una preciosa escultura bizantina, rarísimo ejemplar de Cristo sin barbas, hábilmente realizada, fina, elegante, esbelta, austera y de correcta anatomía, con un atractivo aspecto, doliente y ascético, que inspira con facilidad a la devoción». Mons. Pildain sentía por él, como buen hijo de Lezo y de marinero, un especial cariño, visitándolo con frecuencia en su niñez y años mozos. Más tarde, siendo canónigo, predicó durante muchos años en sus fiestas patronales.

La población de Lezo a principios del siglo XX era de sólo 1.198 habitantes, que en la actualidad superan los 4.000. La fisonomía del pueblo, en el casco antiguo, ha cambiado poco, aunque en los últimos años algunas circunstancias de incidencia industrial, de ampliación de muelles portuarios y de la expansión urbana con la creación de nuevos barrios y polígonos, han determinado una transformación estética, pero sin restar personalidad al lugar que permanece, con sus gentes, con la solera de siempre.

Su escudo de armas tiene, en campo de oro, ondas de mar azules y de plata, con tres tejos verdes en su ribera, sobre cada uno de los cuales hay una panela verde; y de cimera una corona de oro y lambrequines de los mismos metales y colores.

Como hijos ilustres de Lezo, en los siglos XIII al XIX, se encuentran Guillermo Lazón y sus compañeros, como se ha indicado, el almirante Villaviciosa y sus hijos, el capitán Pedro de Vizcaya, el caballero Pedro Tizu, el capitán Domingo de Arizpe y Eugenio Ochoa, notable escritor.

Entre los contemporáneos podemos destacar al organista Tomás Garbizu, al pintor Elías Salaberría, célebre por su lienzo *La procesión del Corpus en Lezo* y, naturalmente, al doctor Pildain, obispo de Canarias.

Por estas tierras pasó el emperador Carlos V cuando iba a Gante, el año 1540, recibiéndosele en el pueblo con gran amor y grandiosos festejos. Recientemente, lo haría el cardenal Roncalli, elegido más tarde Papa, con el nombre de Juan XXIII.

«Lezo no es, de ningún modo, el pueblo pobre, lóbrego y entristecido que pintó Víctor Hugo al hacer la descripción de su visita a este lugar. Cuando la escribió estuvo, sin duda, bajo la influencia de una falsa impresión, patente ya en otras obras de este literato. Quizá, por lo que a Lezo se refiere, su incomprendimiento proceda del contraste que entonces existía entre el desenfado y la libertad —de matices extranjeros y claramente heterodoxos— existentes en la zona donde él habitaba y el recogimiento y la calma, no exentos de prudente alegría, que campeaban en el ambiente urbano lezotarra, dándole unas características seguramente bien diferentes de las que le atribuyó el ilustre escritor galo. Irreligioso, al estilo de la época, no encontró gratos la pacífica gravedad y el silencio del pueblo, ni le gustaron las calles, donde la luz del día era atenuada por la sombra que proyectaban edificios severos, sobre los que a menudo aparecía una cruz», como bien dice Leandro Silván en su obra de nombre «Lezo».

En este Lezo, bello rincón guipuzcoano, histórico y legendario, amparado por su Santo Cristo, cobijado a la sombra protectora del rectilíneo Jaizquíbel y junto al mar, donde en otro tiempo realizaron brillantes empresas muchos de sus antepasados, quiso Dios que naciera Antonio Pildain y Zapiain, un 17 de enero de 1890, en una de esas casas solariegas de piedra, llamada *Betienea*, piso primero, a las once y media de la noche, en un invierno crudo, cuando la nieve cubría con su blancura todo el País Vasco. Hacía pocas horas que las campanas de la vieja torre parroquial de *Joan Bataiatzailea* habían repicado convocando a segundas vísperas de la festividad de San Antonio Abad, como preanuncio del natal feliz de un hijo del pueblo que, al correr de los años, añadiría un báculo y una mitra al escudo heráldico de su patria y cuna.

Tenía que ser precisamente en el día de este anacoreta, porque la estrella del patriarca de los monjes iba a guiar los pasos del recién nacido, dejándole una huella de amor y gratitud, que más tarde, siendo obispo de Canarias, pagaría a su santo y protector, dedicándole la primera parroquia que creara en su diócesis, la de San Antonio Abad, en el término de Tamaraceite, en la isla de Gran Canaria.

Con frecuencia solía decir: «*Yo soy vasco y cristiano por los cuatro costados —de lo que me siento muy orgulloso—, porque en Lezo naci y fui bautizado*».

Cuatro días más tarde, y en la misma parroquia, recibía las aguas bautismales de manos de su tío paterno don Eusebio Pildain, coadjutor de la misma. Se le impuso el nombre de Antonio Serapio, en gratitud, el primero, al santo del día de su nacimiento y, el segundo, en atención a su padrino don Serapio Larreategui, coadjutor de Eibar, siendo la madrina la abuela materna doña María Josefa de Arillaga, representada por su tía paterna doña Victoriana de Pildain. En el Archivo de la Parroquia de San Juan Bautista de Lezo, libro V de Bautismos, folio 36, núm. 5, se encuentra inscrita su partida bautismal, que dice literalmente:

#### PARTIDA DE BAUTISMO

«En la Universidad de Lezo, Provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria, a veintiuno de Enero de mil ochocientos noventa, Yo el infrascrito Presbítero Coadjutor de la misma, con la competente autorización del Párroco de la misma de San Juan Bautista, bauticé solemnemente a un niño a quien puse por nombre Antonio Serapio, es hijo legítimo de Don Gabriel de Pildain, natural de Vergara, de oficio Piloto, y de Doña María Casilda de Zapiain, natural de Astigarraga, Profesora de Primeras Letras, feligreses míos. Nació, según declaración, a las once y media de la noche del diez y siete del mes corriente en la casa «Betienea» piso primero. Son sus abuelos los paternos Don José Venancio de Pildain, natural que fue de Vergara, y Doña María Mercedes de Arrevia, natural de Muruzábal (Navarra) y feligresa de ésta. Maternos, Don José María Zapiain, natural de Astigarraga, y Doña María Josefa de Arrillaga, natural de Alza y residente en Astigarraga. Fueron sus padrinos Don Serapio de Larreategui, natural de Plasencia y Presbítero Coadjutor de Eibar, y, en representación de la abuela materna, Doña Victoriana de Pildain, natural de Vergara y feligresa de ésta, a quienes advirtió la cognación espiritual que trajeron y demás obligaciones, siendo testigos don Martín José de Lizarrazu, Sacristán, y Don José Agustín Isasa, organista, naturales y vecinos de Lezo. Y, por la verdad, firmamos. Fha. ut supra. Dn. Rafael María de Zabala. Dn. Eusebio de Pildain Coadjutor. Rubricados.»

Sus padres, don Gabriel Pildain y Arrevia y doña María Casilda Zapiain y Arriaga, formaron un hogar profundamente cristiano, que Dios bendijo con cuatro hijos: Antonio, Teodora, María y Mercedes, que recibieron una esmerada educación religiosa.

Las dos últimas hermanas murieron bastante jóvenes, quedando solo Antonio y Teodora, que no se separarían, hasta que ésta falleció en Las Palmas el 12 de diciembre de 1958, dejando una profunda huella en el doctor Pildain, ya que le había atendido y acompañado siempre, cuando era canónigo lectoral de Vitoria y luego obispo de Canarias.

Sin duda debió mucho a su padre, viejo lobo marino, hombre fuerte, curtido, constante, valiente y luchador, que supo despertar en su hijo Antonio un profundo amor al mar.

Con frecuencia solía decir: «*Me encanta el mar, contemplar el mar, oír el ruido del mar*». Ya retirado, le veíamos pasear por la Avenida Marítima del Sur, frente al Colegio de los Padres Jesuitas, afiorando, tal vez, aquellos días de su infancia, en los que su padre le llevaba a bordo de su barco por el puerto vasco de Pasajes.

Pero el sentido profundo de la fe y de la piedad lo debió a su madre, de la que recibió la semilla de su vocación sacerdotal, a la que quería y siempre recordaba con veneración. Cuando hablaba al magisterio solía decir: «*Mi madre también fue maestra..., por eso, tal vez, comprendo a los maestros y sé valorar su dedicación a los niños...*

La palabra «ama» en sus labios tenía una emoción y un tono especial, que le hacían correr las lágrimas por sus mejillas, y arrancaba siempre grandes ovaciones, como las de aquella memorable conferencia en el Monumental Cinema de Madrid, el 25 de mayo de 1933:

«Para darnos cuenta de lo que significa tener una madre, nadie mejor que uno, incomparablemente mejor que todos los oradores y escritores y poetas del mundo; porque, pensad cada uno en vuestra madre y decidme si hay en el mundo lengua de orador, pluma de escritor, plectro de poeta, inteligencia de ángel, capaz de cantar cual se merece a esa reina de vuestro amor.

Sería menester tener una lengua tejida de corazones maternales, para decir lo que es una madre, lo que es tener una madre, lo que es el corazón de una madre.

Nosotros, los que, gracias a Dios, tenemos madre; nosotros, los que tenemos la dicha de ver todavía a nuestro lado a esa bendita mujer que nos llevó en su seno, y de cuyo pecho bebimos el dulcísimo néctar de la vida; nosotros, los que tenemos la felicidad de vernos todavía retratados en esos ojos, que no parecen abrirse sino para mirarnos, y de vernos acariciados por esas manos que parecen no moverse sino para servirnos; nosotros, a quienes nos cabe el consuelo inefable de poder, en horas de tristeza, derramar nuestro corazón en el corazón de nuestra madre y sentir cuán al unísono palpita con el nuestro, sabemos bien lo que es tener madre.»

AGUSTIN CHIL ESTEVEZ - «Pildain, un obispo para una época» (1987)

# LEZO HAUNDIA ETA AINTZINAKO BESTE LINAJE LEZOARREN INGURUKO GERTAKIZUNAK

Guillermo Lazon da Lezoko kondairan ezagutzen dugun lehenengo pertsonaia. Gero Navas de Tolosan burukatutako Migel eta Joan Alkaiaga anaiak ezagutzen ditugu. Guregana ez da izen gehiagorik heldu, ematen duenez biztanle gehienak nekazariak edo artzainak zirelako.

Agian garai haietako gertakizun nahu-sienak Lapurdiko itsas-ertzetatik lapurtze-ra zetozten wikingoekin edukitako borro-kaldiak izango ziren, edo bestela Akitania-ko lurralteetatik etortzen ziren erdi ger-lari erdi lapurrekin izandakoak.

Gertakizun hauek ikusita, Alfonso I. erregeak flota kapitain nahusia zen Fortunato Villaviciosa semeak badia zaintze-ra etor erazi zituen. Hauek, Pasai Donibanen eta Lezon finkaturik, laister lotu ziren Arizabalo eta Pildain sendi famatu-kin. Hauen ondoreak ugaritu egin ziren bai Lezon eta bai Donibanen, eta haietako batzuk ospetsuak izango ziren. Hemen ba-karrik Villaviciosa lezoarrak aztertuko di-tugu.

**DOMINGO VILLAVICIOSA.** — XVI. mendearen Flandriara joana, flotatxo baten almirante bezala. Han bertan hil zen.

**MARTIN VILLAVICIOSA.** — Itsasgi-zona baita ere, 1582an frantsesekin eduki-tako itsas gudate batetan hilik.

**JOANES VILLAVICIOSA.** — Ozeano-ko eskuadra baten jenerala izendatutakoa.

**JOANES VILLAVICIOSA** (edo Joanes Lezoko). — Martinen semea. Agiri eta papera askotan bigarren izenarekin azal-tzen da sarritan.

**JOAN LEZO.** — Aurrekoaren semea. Bere aitarekin batera hilik, kortsarioen aurka borrokatzeko ari zirelarik.

**JUANOT VILLAVICIOSA.** — Nahiz eta jaiotzez sanjuandarra izan, Lezon bizi izan zen bere sendiarekin batera. Errege Eskuadraren almirante nahusia izandakoa.



**MIGEL eta ESTEBAN VILLAVICIO-SA.** — Aurrekoaren semeak eta Felipe II. erregearen zerbitzutan biak. Lehenengoa 1573an hil zen holandarrekin borrokatzetan, eta bigarrenak bere aitaren izan zen Errege Eskuadraren almirante titulua hereda-tu zuen.

**BIZKAIA edo BIZKAIARENIA** linaje-koak Lezo eta Donibaneren artean fin-kuatzen ziren, eta beraien lurrek oso arazo haundiak eta oso istilu biziak ekarri zituz-ten, bai Donibanek eta bai Lezok lurreen jabetza erreklamatzen bait zuten.

**BORDA eta DARIETA-BAZKARDO** linajeei dagokienez, ospe haundiko kapi-tainak sortu zituztela esan beharra dago.

**JAIME ZAMORA.** — Errege Eskuadra-ko piloto nahusia. Felipe II.aren garaian Florida, Flandria, Inglaterra, Eire, Esko-zia eta Norbegiako itsaertzeak ikuskatu eta ikertu egin zituen, eta bidai hauei buruzko «Mareas derrotas» izenburuko tra-tadua idatzi zuena.

Bestaldetik gerrateak eta burrukaldiak etengabekи errepikatzen zirenez gero, beren zorigaitzoko ondorioak oso ugariak izaten ziren. Honela familia askok etxea askotan eta beste askotan bizitza bera galdu egiten zuten. Esate baterako, Joan Núñez Lezokoak, Lezo izeneko etxe zaharren nahusia zena, etxea galdu zuen frantsesek suntsitua; eta dirutza bat eskatzeko pentsamentuz, bere semea bahitu egin zuten, bainan bidean, bere bahitzaleen deskido bat aprobetxatuz, ihesari ekin zion.

Abendaño eta Oianilletako jaunei antzezko gauza gertatu zitzaien, eta biek etxea galdu zuten frantses gerlariek zeharo hondaturik.

Bainan kontuan izan behar ditugu, Pasai Donibane eta Lezo hainbat urtetan loturik egonez, Lezoko bizitzan eta maila guzietako ekintzetan parte hartu duten pasaitarrak. Azken hauen artean JOANJO BIZKAIKAIA, Lezon kapera partikular bat eraiki zuena. Eta lotura honen beste froga bat emanaz, XVII., XVIII. eta XIX. mendeko hasieran ere, harruntak izan ziren noblezia edo hidalgia frogakizunetan, bi herrietako, abizen berdina zuten sendiek batera borrokatu zutela aipatuko dut. Honela gertatu zen ARRIBILLAGA, ARTIGA, ARRIETA, AURELA, AIBAR, KAREAGA, SAGARDIZAR, SALABERRIA, UGARTEMENDIA, BIDARTE, LARTZABAL, MENDIBURU, MINONDO-IRIGARAI, OLAZIREGI, OIANGUREN..., eta beste abizen askoren kasuetan.

XVII. mendean FRANTZISKO GAIN-TZA aipatzeko beharrean gaude. Dirudinez, 1658an Gaintxurizketan oraindik zutik diraun Gaintza baserrian jaioa. Apai-za sarturik, Irungo Parrokiako erretorea izendatu zuten, eta hortik aurrera kargu honekin batera, idazle lanetan saiatu zen. 1738an «Historia de Irún-Uranzu» idatzi zuen eta Iruinean argitaratu zioten.

XIX. mendean badugu baita ere zer aipatzekorik. Agian garrantzitsuena EUGENIO OTSOA idazle trebea eta emankorra. Lezon jaioa 1815an eta Madrilen hil 1872an. Madrilen egin zituen bere lehenengo ikasketak eta gero Farisera abiatu

zen Arte eta Ofizio eskolako ikasle gisan, margolaritzan aritzeko asmoz, bainan ordutxarreko gaisotasun batek jota, bide horri utzi egin behar izan zion. Han, Parisen, «Colección de los mejores autores españoles antiguos y modernos» izenburuko liburu sorta zuzendu zuen. 1844an itzuli egin zen, eta 1847an espaineraren akademikotzat onartu egin zuten. 1854 urtean arazo politikoek beharturik Portugal eta Ingleterra aldera aldegin zuen. Literatura kritikoa eta eruditioa da gehienbat, bainan sormenezko zenbait lan ere idatzi zuen, adibidez drama batzuk: «Un día de 1823» eta «Incertidumbre y amor» (Madrilen, 1835an); Elaberri historikoak: «El auto de fe» (1837) —Felipe II.a eta Carlos, bere semeari buruzkoa—; eta olerki liburu bat: «Ecos del alma» (Parisen, 1841an).

Bere «Miscelánea de literatura, viajes y novelas» delakoan, askotariko gaietaz tratzen du. Kazetaria, Carlota Madrazo-kin ezkonduta, honen anaiaren (Pedro Madrazo) «El artista» izparringea zuzendu zuen. Kritiko bezala «La gaviota» obra-ren balioa aurkitu zuen, eta erudito bezala liburu hauek argitaratu zituen: «El tesoro del teatro español», «El tesoro de los romanceros españoles», «Rimas inéditas del siglo XV», «Apuntes para una biblioteca de escritores españoles contemporáneos en prosa y verso» (1840) eta «Catálogo de los manuscritos españoles de las bibliotecas de París» (1844). Baita ere, egile espainarren liburutegiko argitalpenak egin zituen. Bestaldez, bere gutun liburuak oso interes haundikoa dela esan beharra dago.

Oso ideia liberaleko gizona, Eugenio Otsoa da seguraski, Lezo herriak eman duen mailarik goreneko intelektuala.


KARLOS ETXEZURIETA

«Lezo Herrilaren ikuspegia  
sozio-ekonomiko-historikoa» (1983)

# GIZARTEA

## Tomax Marixalarren oroitgarri

Diotenez gizon bakoitzak badu bere bidea egina, eta benetan horrela dela zebait kasutan, eta Etxeberriko Tomaxen kasuan baita ere. Nik behintzat bide eginarekin ezagutu zaitut, eta esan didatenez betidanik horrela izan duzu. Izan duzu eta egin duzu, zuk urratu bait duzu egunez egun, urtez urte gure artean horren ospetsu, xelebre eta maitagarria denbora berean, egiten zintuen bidea.



Nahiz eta egun gure artean egon ez, badirudi oraindik ari zaitudala ikusten zure txapel zaharrarekin buruan, eta zure pipa famatuarekin ahoan. Horregatik deitzen zizuten «Pipax», eta ez alferrik! Aditu dudanez, gaztetan nahiago omen zenuen ardoa neskak baino, eta zure bizitza osoan nahiago izan duzu beti, baserriaren pakea, apaltasuna, kaleko zarata eta buila baino. Filosofia bitxi eta jatorra, zu bezelako pertsonai bitxi eta jatorren filosofia haundia.

Oraindik oroitzen dut, Elortegi, Patxikuene, Irurtzun eta Eguzkiko erronda egiten zenuenenan zure moto zaharra eramanaz, kaskoarekin eta guztiz. Baina behin kaskoa ostu zizuten, eta beste behin moto bera, eta hainbeste urtetan egindako errondarekin segi ahal izateko tratorra eraman behar izan zenuen. Ilunabarrean abiatzen zinen, eta gau gaelean itzuli. Zure tratorraren burrunba aditzerakoan, danok bagenekien zu zinela, eta ezin genuen ezpaineratik «Badijoia Tomax» bat bota gabe egon. Geroago jakin izan genuen tratorra hondaturik zenuela, eta ez genuen gehiago bere zarata aditu, baina zuk jarraitu zenuen zure erronda eginez, kaskorik gabe, motorik gabe, tratorrik gabe..., baina zure betiko ilusio eta ginarekin.

Bestalde esan beharra dago ez zegoela Lezon euskal jairik, nekazal giroko probarik, zure presentzia arlo eta noblea denbora berean, ezagutzen ez zuenik. Gaintxurizketako jaietan zu zinen ohizko laguna, xelebrekeriaren arloa, mostradore ondoko amorratua, bapateko bertsolaria zenbaitetan, aizkolarri eta harrijasotzaile on eta trebea besteetan. Aurtengo festetan ikaragarri sumatu dugu zuk utzitako hutsunea. Festak ziren baina zu ez zinen han gurekin festa egiten, alaitasuna sortzen, laguntasuna zabaltzen.

Badaude egun madarikatuak, eta koxe harrek, zure ohizko errondatik zentozela harrapatu zintuen egun hora, horietako bat zen, dudarik gabe. Gaueko iluntasunak aditu zituen zure azken hitzak, ilargia izan zen zure heriotzaren lekuko mutua, Gaintxurizketako belarra berdea zure odol gorriaren ontzia, izarrak zure azken pentsamenduen gutunlariak. Zure goardasola izan da guretzat zure heriotzaren eguneroko oroitgarria, zure hutsunearen betegarri eskaxa..., eta hor dago oraindik belarrian etzanda, zure martxa gogoratu nahiko baligu bezala.

Gaur igaro naiz Gaintxurizketako bidetik, eta ez dut zure goardasola erdoindua belarretan botea ikusi, pena sentitu dut zure oroitgarriaren falta sumaterakoan, baina poza denbora berean, ez bait dugu lezoarrok inolako goardasolik behar zutaz oroitzeko, edozein momentutan eta edozein tokitan gure inguruko danak zu han egon zarela, edo holako eta halakoa esan edo egin zenuela, gogorazten bait digu.

Tomax, jakin ezazu zauden beste munduko taberna hortatik, zure bizitza ez dela alperrikakoa izan, zuhaitz eta euriarena ez den bezalaxe. Danok daukagu gure tokitxoa bizitza honetan, eta ez dugu gauza haundirik egin behar, gure biziari balorea edo izateko arrazoia emateko. Eta zu Tomax horixe izan zinen guretzat, euriaren frexkura, belarraren berdetasuna, bizinahi izatearen grina. Agur Tomax, agur! Egun haundira artel!

JOSEBA PRESENTACION BARANDIARAN

# Evolución Demográfica de LEZO

En el estudio que aquí comienza vertimos ordenada y sintéticamente una serie de datos sobre la población de Pasaia en el período comprendido entre 1846 y 1987, es decir 142 años de su historia.

Hemos seleccionado aquellas informaciones a nuestro juicio más interesantes, dejando al margen otras igualmente importantes pero quizás más técnicas y menos adecuadas para una publicación de estas características. De todas formas hemos de empezar por decir que si bien las cifras resultan siempre frías y un tanto ásperas, no es menos cierto que expresan realidades muy significativas sobre el pasado de nuestros pueblos y la forma de vivir de nuestros ancestros. Cualquier persona dotada de un poco de curiosidad por estos temas encontrará en ellos materia de reflexión o incluso motivaciones para iniciar una investigación por cuenta propia.



CUADRO N.º 1

Año	N.º habitantes	% Habits. sobre Guipúzcoa	Períodos (en años)	Variación demográfica	Variación Habits./año
1846 ... ... ... ...	700	0,67			
1857 ... ... ... ...	850	0,54	11	+ 150	+ 13,64
1877 ... ... ... ...	1.059	0,63	20	+ 209	+ 10,45
1888 ... ... ... ...	1.109	0,61	11	+ 50	+ 4,55
1897 ... ... ... ...	1.203	0,63	9	+ 94	+ 10,44
1900 ... ... ... ...	1.198	0,60	3	- 5	- 1,67
1910 ... ... ... ...	1.263	0,56	10	+ 65	+ 6,50
1920 ... ... ... ...	1.423	0,55	10	+ 160	+ 16,00
1930 ... ... ... ...	2.062	0,68	10	+ 639	+ 63,90
1940 ... ... ... ...	2.143	0,65	10	+ 81	+ 8,10
1950 ... ... ... ...	2.447	0,65	10	+ 304	+ 30,40
1960 ... ... ... ...	3.296	0,69	10	+ 849	+ 84,90
1970 ... ... ... ...	4.057	0,64	10	+ 761	+ 76,10
1972 ... ... ... ...	4.041	0,64	2	- 16	- 8,00
1975 ... ... ... ...	5.008	0,73	3	+ 967	+ 322,33
1981 ... ... ... ...	5.372	0,78	6	+ 364	+ 60,67
1987 ... ... ... ...	5.682	0,82	6	+ 310	+ 51,67

En la columna primera se señalan los años en los que consta su población de hecho. La segunda columna la ocupa el número de habitantes de Lezo en dichos años. El tanto por ciento que su población representaba respecto del conjunto de Guipúzcoa queda expresado en la columna tercera. La cuarta la ocupa la diferencia de años entre uno y otro censo. En la quinta consta la variación de población en el período cifrado en la columna anterior, y en la última se muestra el resultado de la división entre la columna quinta y la cuarta, lo que nos proporciona el incremento medio de habitantes en ese período de años.

A la vista de estos datos podemos concluir:

1.º La entidad demográfica de Lezo respecto del conjunto de Gipuzkoa se ha mantenido muy estable entre 1846 (cuando representaba el 0,67 %) y 1987 (0,82 %), experimentando una leve tendencia al crecimiento sólo a partir de 1972.

En estos 142 años la población de Lezo se ha multiplicado, en números absolutos, por 8,12; o lo que es igual, ha pasado de los 700 habitantes de 1846 a los 5.682 de 1987. En ese mismo tiempo Guipúzcoa pasó de tener 104.263 a 691.396 habitantes, lo que supone una multiplicación por 6,63 veces su antigua población.

Vemos, pues, que el crecimiento demográfico de Lezo en el último siglo y medio ha sido proporcionalmente mayor que el conjunto provincial.

2.º El máximo incremento medio anual (sexta columna) lo experimentó Lezo en el período comprendido entre los años 1972 y 1975, coincidiendo con un crecimiento global de la provincia.

3.º Sólo en los períodos de 1897 a 1900, y de 1970 a 1972 se producen disminuciones demográficas, que no es difícil pronosticar respondieran a sendos momentos de recesión económica, con sus consecuencias de desempleo, emigración, etc.

#### CUADRO N.º 2

Sepamos ahora la proporción de varones y hembras en Lezo a lo largo de un siglo:

Año	Hombres	Porcentaje	Mujeres	Porcentaje
1887	563	53,16	496	46,84
1897	612	50,87	591	49,13
1960	1.667	50,58	1.629	49,42
1981	2.678	49,85	2.694	50,15
1987	2.800	49,28	2.882	50,72

Al igual que ocurre en Pasaia (1) el número de varones es ligeramente superior al de mujeres (salvo en la última década), lo que bien puede achacarse a la preponderancia del sector pesquero en Lezo hasta tiempos no muy lejanos, con la consiguiente demanda de mano de obra masculina.

#### CUADRO N.º 3

Niveles de alfabetización de los vecinos de Lezo el año 1877:

	Hombres	Mujeres	Total	Porcentaje	Gipuzkoa
Saben leer y escribir ...	133	56	189	17,85	27,11
Sólo leer ...	46	117	163	15,39	14,24
NI leer ni escribir ...	384	323	707	66,76	58,05
TOTALES ...	563	496	1.059	100,00	100,00

(1) Revista PASAIA. Año 1986. Págs. 5-7.

El que en la actualidad el nivel de alfabetización de la población de Lezo sea casi total (según el padrón de 1981 había exactamente 92 iletrados) no quiere decir que siempre haya sido así. La prueba está en estos datos: hace 112 años 66,76 % de sus habitantes no sabían ni leer ni escribir.

No obstante, si comparamos estas cifras con las del conjunto de la población guipuzcoana observamos que el porcentaje de Lezo es sensiblemente superior, sin duda debido también a la preponderancia del sector pesquero, que exigía que los muchachos desde muy jóvenes entraran a trabajar para ayuda de sus familias.

**CUADRO N.º 4**

Lugar de nacimiento de los habitantes de Lezo en el año 1877:

	Hombres	Mujeres	Total	Porcentaje	% Guipúzcoa
Nacidos en Guipúzcoa ...	452	481	933	88,10	91,17
Nacidos fuera ... ... ...	111	15	126	11,90	8,83
TOTALES ... ... ...	563	496	1.059	100,00	100,00

Comparando las cifras de Lezo y la media provincial apreciamos que mientras en Guipúzcoa el 91,17 % de los habitantes en ese año 1887 eran naturales de ésta, en Lezo la proporción es semejante pero algo menor —88,10 %—, atribuible al permanente tránsito de personas y mercancías por el puerto pasaitarra.

**CUADRO N.º 5**

En este cuadro se desglosa la distribución demográfica de la comarca al 31 de diciembre de 1887:

Entidad	Clase	Habitantes	Porcentaje
Aritz-Bacarra	Fábrica de pólvora ... ... ...	2	0,18
Errekalde	Casas de labor ... ... ...	28	2,52
Gainchurizqueta	Apeadero de ferrocarril ... ...	12	1,08
Lezo	Universidad ... ... ...	454	40,86
Lezo-Rentería	Estación de ferrocarril ... ...	6	0,54
Merceditas (La)	Fábrica de ladrillos ... ...	1	0,09
Peliar	Casas de labor ... ...	20	1,80
Edificios diseminados	... ... ...	588	52,93

**CUADRO N.º 6**

Idéntico al anterior pero referente al año 1930:

Entidad	Clase	Habitantes	Porcentaje
Estación (La)	Estación ferrocarril ... ...	8	0,39
Lezo	Universidad ... ... ...	1.058	51,31
Edificios diseminados	... ... ...	996	48,30
TOTALES ... ... ...		2.062	100,00

**CUADRO N.º 7**

Relativo al año 1940. Téngase en cuenta que entre el cuadro anterior y éste medió la guerra civil lo que, obviamente, influye en las variantes demográficas:

Municipio	Categoría	Habitantes	Porcentaje
Lezo (capital)	Universidad ... ... ...	1.310	61,13
San Juan	Barrio ... ... ...	340	15,87
San Roque	Barrio ... ... ...	493	23,01

Hasta aquí esta breve exposición sobre la evolución demográfica de Lezo a lo largo de 142 años de su historia. Hemos querido transcender de lo anecdótico para plantear, con todas las limitaciones que una publicación como ésta nos plantea, el desarrollo de nuestra villa y su progresivo crecimiento. Quisiéramos con ello animar además a otros investigadores para que se adentren en la historia estadística de nuestros pueblos y ciudades, lo que coadyuvará sin duda a un mejor conocimiento del pasado de nuestra provincia y, en consecuencia, a quererla también un poco más. Ojalá sea así.

ANTXON AGIRRE SORONDO

## Gaurko Lezoar Aldizkarigintza



Pixkanaka pixkanaka Lezon euskalzale-tasunarekin batera, lezoaletasuna edo lezotarrismoa berpizten ari zaigu. Bazirudien Lezo bigarren mailako herri bat izatera, ia ia Errenteriako sasiauzo bat izatera kondenaturik zegoela, baina azken urte hauetan, elkarte ezberdinak egiten ari diren lanari eskerrak, lezoar izatearen zaletasuna gero eta gorago ari zaigu igo-tzen.

Aldizkarigintza dugu lezotarrismo berri honen frogarik onena. Ia deus ez izatetik bi edo hiru aldizkari izatera igaro bait gara azken urte hauetan. Badirudi aurre-tik zenbait aldizkaritxo egon direla, baina gaurko aldizkarigintzaren gorakada aztertzeko, nik jaietako ateratzen den liburux-karekin hasiko nintzateke, iaz amaitu zen ASKE izenekoarekin segitzeko. Ikus dezagun.

### 1.—JAI EGITARAU LIBURUXKAK

Aspaldiko ohitura izan arren, jai egitarauarekin batera kaleratu egin diren aldizkari hauek oso momentu ona lortu zuten 1978. urtetik aurrera, Francoren ondorenko korporazio berriekin kointzidituz. Aldizkari hauetan, jaiei buruzko zehazki-zunekin batera, herriaren historia, gizarte eta nortasunari buruzko zenbait datu eman izan ohi dira. Joxe Krutz Sarasola eta Patri Urkizuren alkatetzetan bi liburuxka atera ziren urtero. Mendekoste jaietako xumeago bat, eta iraila aldean, Santa Kruztzako, Lezoren zenbait berri ematen zigan aldizkaritxoa. Ez da esan beharrik, asko eta asko direla egitarau aldizkari hauen kolezionatzale diren lezotarrak. Arantza Zeberio alkatetzara iritsi zenean, ohitura hau ia ia desagertzera ailegatu zen. Eta 1987. urtean Mikel Arrizabalaga alkatte berriaren lehenengo aginte urtean, hain zuzen, aldizkariak berriro aurrera jo zuen.

### 2.—ASKE, EKAITZEKO GAZTEDIAREN ALDIZKARIA

1985.eko kultur hutsunean, aldizkari lezoarren basamortu arront hedaturik zegoen urte hartan, Ekaitz Atseden Taldeko gazteek, herriko Joxe Luix Aperribai apai-zaren laguntzarekin, euskarazko aldizkari baten argitaratzeari ekin zioten adoretsuki. Lehenengo zenbakia aipatutako urteko maiatzean kaleratu zen ASKE izenarekin; Joxe Luix Aperribai, Mari Mar Arozena, Imanol San Sebastian, Mikel Susperregi, Juan Luis Urkizu eta Lander Zurutuzak erredakzioa osatzen zutelarik. Oso proiektu polita zen, eta bere orrieta lezoar nortasuna osatzen duten fazeta guztiei eman zieten tokia: historia, gizartea, literatura...





Jakin badakigu oso ale gutxiko tirada zeukala, eta baita oso gutxi saltzen zela ere, baina nire uste apalez, ASKEk oso eragin haundia izan du 85-87ko lezoar ar-loko kulturaz, berak berpiztu eta mantendu bait zuen urte hauetan, lezoar izatearen ziria. Honela zioten beren lehenengo hitzaurrean:

# Aske

## Lezo ko aldizkaria

1 ZENBAKIA

1985-eko MAIATZA



«Aspaldikoa da, agian, gure herrian aldizkari bat argitaratzeko asmoa. Beste zenbait herrian ere, auzokoetatik hasita, sortuz joan dira herri aldizkariak nahiz urtekariak. Hor ditugu honen lekuko Errenterian, Pasaian, Oiarzunen..., atera izan direnak. (...)

Interesgarria ger a dakizuelakoan plazaratzen da, beraz, lehenengo ale hau. Bainan, hori geroak esan beharko du. Geroak eta ale hau eskutan hartzen duzun horrek.»

Lehen esan dudan bezala, 1985ko maiatzean atera zuten lehenengo zenbakia, urte bereko azaroan bigarrena. 1986ko ekainean hirugarreña, eta 1987ko irailean laugarreña. 1986ko ekainean hirugarreña, eta 1987ko irailean laugarreña eta azkena. Lau zenbaki beraz, hiru urtetan. 1988ko irailean, LEZO izeneko udal aldizkariaren lehenengo zenbakian, eta agiri moduzko eskutitz baten bitarte agurtu zen betirako, honako hitz hauek erabiliz:

«Gure gaurko erabakiaren arrazoi nagusia denbora falta da. (...) Uste dugu egindako lanak pena merezi izan duela eta «ASKE»-k bide berri bat urratu duela Lezoko kulturaren munduan. (...) Gauza guztiek dute hasera eta bukaera. Hemen eta orain bukatzen da «ASKE», Lezoko Aldizkariaren historia». (Lezon, 1988.eko uztailak -1).

Eta bai aldizkariaren haseran, eta bai bukaeran arrazoia dute. Lezo, bertako aldizkari baten beharrean zegoen, eta guztiz interesgarria egin zaigu lezoarroi lehenengo lerrotik azkeneraino. Beraiek beren lehenengo hitzaurrean hitza geroaren eta irakurlegoaren ahoan ipintzen dute, eta nik, irakurle izan naizenez neurrian, honela baiezatzen dut: ASKE 85-87 urteetako Lezo herriaren erreferentzirik onena izan bait da. Eta agurrezko eskutitzean diote bezala, nik ere errepikatzen dut: «Askek bide berri bat urratu du Lezoko kulturaren munduan».

### 3.—BESTELAKO ALDIZKARIAK

Egitaraua Aldizkaria eta Askez gainetik, azken hauetan bestelako aldizkariak sortu dira lezoar herri elkarte eta talde ezberdinak eskutik. Alderdi politikoek beraienak atera dituzte baita ere, baina hemen ez ditugu deuserako ikuituko, bakar bakarrik elkarte eta erakundeek sortutakoak baizik. Beraien artean, Lezoko Askagintzak eta ANDUI izenarekin kaleratzen duena. Gaia drogaren prebentzioaren ingurukoa izaten da, eta Egitarau Aldizkariarekin gertatzen den bezalaxe artikuluak euskerazkoak eta erderazkoak izaten dira.

Lezoko Amnistiaaren Aldeko Batzordeak bestaldez, herriko preso eta exiliatuen aldeko zenbait aldizkari kaleratu ditu betidanik. 88ko udaran ASTINTZEN izenekoaren lehenengo zenbakia atera zuen, eta negu parterako bigarrena. Elebiduna da, eta gai ardatza euskal presoen inguruko

borroka.

Oso kontuan hartzekoa da ere, 1985. urtean eta Parrokiko Gazte Talde batzuren eskutik, kaleratu zen LEZO izeneko aldizkaria. Bertan zazpi puntu nagusi ikuitzen zirelarik: 1: Demografi Egitura. 2: Ekonomi Egitura. 3: Bilakaera Politikoa. 4: Udal Ihardunbidea. 5: Ekologia. 6: Bilakaera erlijiosoa eta 7: Inuesta Soziologikoa. Aldizkari honen kaleratzeak oso garrantzi haundia izan zuen urte haietan, eta oso eragin zabalekoa gainera. Zoritxarrez, aldizkari honek ez du inoiz segidarak izan.

Txerrimuñok ere bizpahiru aldizkari kaleratu izan ditu, baina inolako izenik gabek. Azkenekoa, joan den urtean atera zuten, bere bostgarren urtemugarekin kointzidituz. Bertan Lezoko Rugby Taldea, Rasta Mugimendua, eta bere inguruko zenbait berriei buruzko zehazkizunak ematen dituztelarik. Elebiduna da, eta komikiek toki haundia hartzen dute.

Aitu dudanez, Lezoko Askapenak ba omen du aldizkari bat ateratzeko asmoa, eta gauza bera egin nahi omen dute Lezoko Zineklubak eta Lezoko Eguzki Talde Ekologistak. Danentzako nire animorik beroenak. Musika Akademiak Lezon ospatu den III. Ttopaketa dela eta, egitarau liburuxka atera du ere, eta nahiko dotore gainera. Guztiz esporadikoa denez, ez du segidarak izango.

## 4.—LEZO, IZENEKO KULTUR

### ALDIZKARIA

Aurrekoia ikusita, elkartetako arduradunek behin eta berriro eskatu zuten Kultur Batzordearen bileretan, Udalak kultur aldizkari bat zezan. 1988ko iraileko jaietan eman ziren lehenengo urratsak, jai egitarauarekin batera, lehenengo zenbakia kaleratuz. Proba moduko zeredozer bezala atera zen, eta lezoarren artean izan duen harrera ona ikusirik, segida ematea erabaki da Kultur Batzordea osatzen duten artean. Asmoa urtean bitan ateratzeko da. Aurtengo lehenengoa dagoeneko kalean dago, eta kolaboratzaileen aldetik laguntzarik baldin badugu, irailerako espero dugu hirugarrena ateratzea. Elebiduna izan arren, lehentasuna gure nazio hizkuntzari ematen diogu, eta gure asmoa izango litzateke egun batetan euskara hutsez kalera ahal izatea. Baino denborari denbora utzi behar zaio.

Aipatu beharra dago bestaldez, joan den urtean kaleratutako «LEZOKO GIZARTE-ONGIZATEA ETA KULTUR BALIABIDEEN GIRA-ZERRENDA» izeneko aldizkaritxoa, non herriko elkarte guztien helbide eta bere helburuen berri ematen den. Elebiduna eta formato ttikian egina.

Ez nuke bukatu nahi, hemen nire ez ezaugutzea dela eta, aipatu ez ditudan aldizkarien arduradunei barkazioa eskatu gabek. Nire begirune sentikorrena danentzat.

ZABARRE

# Lezoko kale izendegiari buruzko zenbait adierazpen

Gure kale eta plazetako izenek zerbait dakarkigute burura behin eta berriro, baserri zahar baten izena, pertsonaia batena, ekintza zehatz batena... Bere izenekin gorde nahi izango bagenu bezala gure artean aspaldian galdurik, hilik, erorik... dagoena, edota beren oroitmena gure gogoan present eduki nahi izango bagenu bezala. Iraun ez duena irautarazi gure artean, beste modu laburrago batez esana.

Bakoitzak badu bere mezua, bere oroitgarria..., eta Lezokoek baita ere noski! Gure herriko kale eta plaza izenen atzean gordetzen diren adierazpenak ezagutzeko bi artikulu beren mapekin eta guzti ezagutzen ditut nik. Lehendabizikoa garaian alkate zegoen Patri Urkizuk egina da eta «LEZOKO KALE IZENDEGIAZ ZENBAIT OHAR» izenburuean, 1982.eko Mendeko Jaien Egitarau Liburuxkan argitaratua, non kaxko zaharreko eta auzoetako kale eta plazei buruz luzatzen den.

Eta bigarrena, 1988.eko irailean argitaratua da, Kultur Batzordeak kaleratzen duen «Lezo» izeneko aldizkariaren lehenengo zenbakian. Zabarrek sinaturik dago eta «GAINTXURIZKETAKO INDUSTRIALDEEN ETA KANPO ALDEKO ERREPIDAREN IZENDAKETA» izenburua darama. Bertan Gaintxurizketan dauden Iturrin eta Sagasti industrialdeetako kaleen eta orduan oraindik bukatu gabe zegoen kai aldeko Polentzarrene Ibilbidearen izenen arrazoiak ematen zaizkigu, aipaturiko kale guztien kokapena zehazki azaltzen diguten hiru mapekin lagundurik.

Nahi duenak, beraz, badaki nora jo. Ni segidan, eta aurretik aipaturiko artikuluez baliaturik, adierazpen xume bat emanez, saiatuko naiz.


1. **KALE NAGUSIA.**—Hauxe izan da betidanik, herriko ardatz nagusia. Badirudi lehenengo etxeak itsaso aurrean eraiki zirela, eta pixkanaka pixkanaka kale honen alde bietan lerrotu ziren. Bera izan da urte luzeetan Lezoko kale bakarra.
2. **DONIBANE KALEA.**—Kale hau beranduago sortu zen, San Joan Bataiatzaile izeneko parrokiaren azpian. Hortik datorkio izena. Eta bera izan da Lezon sortu den bigarren kalea.
3. **GURUTZE SANTUAREN PLAZA.**—Aintzinatik herriko bihotza izana. Bertan kokatzen dira Udaletxea eta Gurutze Santuaren Baseliza ospetsua, San Joan Bataiatzaile Eliza aurki dagoelarik. Baselizak eman dio izena.
4. **JAIZKIBEL HIRIBIDEA.**—Jaizkibelen magaletik Pasai Donibane aldera daraman bidea zahar zaharra dugu ere, eta betidanik lotu egin da gainera Irun eta Hondarribiatik Gaintxurizketatik barrena zetorren eta Erreenteria aldera zeraman bidearekin. Gaur egun horrela da ere. Bazter bazterrean duen mendia eman dio izena.
5. **ATZEKOATE.**—Kale Nagusia bitxi bitxia dugu, eta bere bitxikeriak kale honen zahartasunean dute iturri. Sarrera eta irteera franko ditu, batzuk kai alderantz doaz, Jaizkibel Hiribidera bestea. Azkeneko hauen artean famatuena eta ederrena denbora berean, Atzekoate izeneko bidexka dugu. Herriaren atzeko alderantz (urrekoia itsas aldea bait da) eramatzen duenez, guztiz logikoa lezoar herriak eman dioen izen eder bezain adierazgarria.
6. **ZUBITXO KALEA.**—Garai zaharretan Lezo kaxko zaharra eta inguruko zenbait auzotxo osaturik zegoen. Hauetako bat, Gaintxurizketako bide bazterrean eraikitzen zen Zubitxo izenekoa. Auzo alaia zen, eta bertan zenbait sagardotegi kokatzen ziren. Erreka gainean altxatzen den zubitxoak eman zien izena bai etxeari eta bai auzoari. Denborarekin Lezo haundiagotu egin zen, eta Zubitxo auzoa eta Lezoko kaxkoa kale batez lotu egin ziren, kale honek izen bera hartuz. Zubitxori Txuitxo deitu egin zaio ere modu hurbilago batez.
7. **PIKUKALE.**—Zubitxo Kalean Kale Nagusian gertatzen zaigun gauza bera errepikatzen da. Baditu sarrera eta irteera franko ezker eta eskubiarekin lotzeko. Hauetako bat Pikukale dugu, Zubitxo Kaletik Jaizkibel Hiribidera garama-

tzan bidexka. Bere aiheka batean lerden altxatxen den pikuondoak ematen dio izena.

8. **GOIKO PLAZA**.—Udaletxe atzean, eta San Joan Bataiatzailearekin mugatz, badugu beste plaza zabal bat, gaur Goiko Plaza deitzen duguna. Badirudi garai batean haitz edo arroka galanta izan dela, eta gero haitzari tokia kenduz, gaurko frontoia eta plaza egin zirela. Oso puntu neuralgikoa da, bertatik Gurretze Santuaren Plaza, Gaintxurizketako bidegurutzea eta Lezoko Kaxko Zahar osoa ikus eta menperatu egiten bait da. Ondoan du Markesane izeneko parkea, eta probalekua beste izkinean. Goian, herri gainean egotetik, datorkio herriak maixuki eman dion izena.
9. **GILLERMO LAZON KALEA**.—Industri garapenak bere eragina haundia izan du Euskal Herri osoarengan eta baita Lezoko biztanlegoarengan ere. Herri ttikiak zirenak haundiak bihurtu ziren, eta zeliaik, lintzurak, basoak..., zeuden tokietan etxe, plaza eta kale berriak eraiki ziren. Lezon gauza bera gertatzen, eta kaxko ondoan kale berriak sortarazi zituzten. Hauetako bat dugu honako hau. Hondarribiako artxiboko agiri batetan irakur daitekeenez, 1203. urtean, Alfonso VII. erregeak Lezoko hirixka eman omen zion Gillermo Lazon izenekoari. Badirudi herriaren izen berak zer ikuste haundia duela pertsonaia honekin. Bere omenez eman zaio izena kale honi.
10. **AGUSTINA LIZARAZU KALEA**.—Aurrekoaren garaikoa da, eta bere izenarekin 1873 eta 1965 artean bizi izan zen maixtra eta katekistaren oroitmena goratu nahi digu.
11. **ANTONIO PILDAIN KALEA**.—Bi aurrekoen artean eta modu paralelo batean kokatzen da. Antonio Pildain 1890 eta 1973 artean bizi izan zen. Katedratikoa, diputatu eta Canariasko gotzaia izana. Franco diktadorearen garaian jarraitu eta desterraturik izana. Guztiz beharrezko zen Lezoko kale bati herrikoseme ospetsu eta ilustre honen izena ematea.
12. **FRANTZISKO GAINTZA**.—Kale ttiki honek Goiko Plazatik Donibane Kalera jeisten gaitu, Alleru Elkarte aurretik igaroz. Bere izenarekin 1658. urtean Gaintxurizketako Gaintza (edo Endara) baserrian jaiotako apaizaren irudia oroitu nahi digu. Apaiza eta idazle. Irungo erretorea izan zen, eta berari zordiote irundarrek «Historia de Irún-Uranzu», non egileak herri honen kondaira agertazarazten digun.
13. **HIPOLITO GEZALA**.—Gillermo Lazon Kalaren parekoa. H. Gezala (1880-1958) Lezoko Parrokiako organojolea eta herriko belaunaldi askoren solfeo irakasle izana da. Erreenterian herriko musika bandako zuzendariordea ere izan zen.
14. **POLENTZARRENE**.—Kai aurrean kokatzen da. 1988. urtean bukatu zen Andreone Kultur-Etxe paretik igaroz, Donibane alderantz daraman Jaizkibel Hiribidearekin lotzen duen gunea. Aintzinatuan ba omen zegoen kai aurren Polentzarrene izeneko baseria, eta honen oroitmena gorde nahiean, bere izena jarri zaio kanpo aldeko ibilbide honi.
15. **LARRUN KALEA**.—Biztanleriaren igoerak gero eta eraikuntza gehiago eskatu zuen, eta honela egin ziren Jaizkibel Hiribidearen beste aldean, gaur altxatxen diren auzo berriak, beren kale, plaza eta guzti. Kale hauei Euskal Herriko zenbait mendiren izenak eman zitzazkielarik. Hala nola, Lapurdi, Gipuzkoa eta Nafarroa artean altxatxen den mendi honen kasua. Larrun mendia, sorginen mendia, eta orain... Lezoko kale baten izena.
16. **URDABURU KALEA**.—Erreenteria aldeko mendi honek bere izena uzten digu aurrekoaren parekoa dugun kale hau bataia dezagun.
17. **ARALAR KALEA**.—Gipuzkoar mendikatearen izena darama.
18. **AITZKORRI KALEA**.—Urbia aldeko gailur ospetsuaren izena darama.
19. **GORBEA KALEA**.—Hauxe dugu bostgarren, eta bere izenarekin Bizkaiko mendi famatua dakarkigu gogora. Mendia eta kanta ere, gogoa ematen bait digu «Maritxu sube al monte y verás...» lau haizetara jaurtitzeko.
20. **AUÑAMENDI KALEA**.—Nafarroa, Zuberoa eta Biarno arteko mendi honen izenarekin bukatzen da gure herrian euskal mendiei eskeinitako zikloa. Bera omen da Euskal Herriko gailurrarik haundieta, eta hemen auzo hontan ere, bera da garaiena.
21. **ELIAS SALABERRIA HIRIBIDEA**.—Kale honek du bere hasiera Gaintxurizketara daraman bidegurutzean, eta herriko pintore famatuaren izena goratzentzu. Elias Salaberria (1833-1952) ospe haundiko pintorea izan zen, eta bere izena euskaldun pintore onenen artean ipintzen da.

22. **EUJENIO OTXOA.**—Polifazetiko honen izena daraman kale hau San Pedro auzoan kokatzen da. Eugenio Otxoa (1815-1872) pintore, akademikoa, idazle eta kazetari famatua izan zen.
23. **LEXO BERTSOLARI KALEA.**—Hau ere San Pedro auzoan kokatzen da, eta bere izenarekin Irurtzun baserriko semea zen bertsolaria gogorazi nahi digu (1897-1952).
24. **LOPE ISASTI PLAZA.**—San Pedron kokatzen zaigu, eta bera da herri hontako hirugarren plaza. Lope (Martinez) Isasti XV. mendeko lezotar famatua dugu. Teologian doktore, kronista eta idazlea. Bere libururik ospetsuena: «Compendio Historial de la Provincia de Guipuzcoa», bertan gipuzkoar herri guztien berezitasunak kontatzen dizkigularik. Lezori dagokionez oso gauza bitxiak kontatzen ditu.
25. **GAINTXURIZKETA BIDEA.**—Bide hau zahar zaharra dugu, eta Gaintxurizketatik barrena Irun eta Hondarribiarekin komunikatzen gaitu. Elias Salaberria Hiribidea bukatzerakoan, hasiera hartzen du, eta Gaintxurizketako kaxkoan, bere izeneko baserriaren aurrean, Irun eta Hondarribiarekin muga eginet, bukatzeko.
26. **TOMAX GARBIZU KALEA.**—Hauxe da Altamira auzoa inguratzen duen kale bakarra. Bere izenarekin bizi den lezoar konpositore eta idazle famatua goratu nahi izan da.
27. **ITTURRIN KALEA.**—Bere izeneko industrialdean dago. (108 poligonoan) Iturrin baserria zegoen tokitik pasatzen denez, bere izena hartu du.
28. **ABENDAÑO KALEA.**—Hau ere Gaintxurizketako Iturrin Industrialdean kokaturik daukagu. Abendaño baserriraino igotzen denez, bere izena hartu du.
29. **OLAIZOLA KALEA.**—Aurrekoen industrialdean kokaturik. Olaizola izeneko baserri alderantz zuzentzen denez, bere izena eman zaio.
30. **ITXU KALEA.**—Gaintxurizketan dago, hiru aurrekoen industrialdean. Itxu baserri alderantz igotzen denez, bere izenarekin bataiatu zaio.
31. **SAGASTI KALEA.**—Gaintxurizketako Sagasti Industrialdean kokatzen da, bere ardatz nagusia izanik. Industrialde honi 103. Poligonoa deitu zaio urte luzeetan. Kale hau Sagasti baserri zegoen tokirantz abiatzen denez, bere izena eman zaio.
32. **URUNE KALEA.**—Aurrekoaren moduan Sagasti Industrialdean kokaturik dago. Urune (Une) aurretik igarotzen denez, bere izena hartu du.
33. **IRURTZUN KALEA.**—Aurrekoen ondoan kokaturik. Irurtzun baserriaren aurretik pasatzen da, eta horregatik eman zaio bere izena.
34. **HARITZBAKAR KALEA.**—Irurtzun eta Sagasti kaleen artean kokatzen da. Bere izeneko baserri alderantz dioanez, bere izena eman zaio.
35. **URDABURU ALDEKO PLAZA.**—Hauxe dugu, herrian sortu zaigun laugarren plaza. Urdaburu auzoan kokatzen da eta bere azpitik lur azpiko aparkalekua eginik dago. Urdaburun dagoenez, jende askok Urdaburu Plaza deitzen dute, baina bere baitan Karlos Saldise zenaren omenezko oroitgarria dagoenez, beste askok Karlos Saldise Plaza deitzen diote. Inauguraturik ez dagoenez, ez du oraindik inolako izen ofizialik. Denborak eta korporazioak dute hitza, ni nire aldetik bigarren izenaren aldekoa naiz. Karlos Saldisek, ondo merezi bait du, nire uste apalez, holako esker ona Lezoko herriaren aldetik.

JOSEBA PRESENTACION BARANDIARAN



# LEZO-KO SANTO KRISTOREN ELEIZATXOR

Meza ondoren atera nintzan eleizatik kanpora, zeruba azaltzen zan urdintsu itsaso aldetik; atertu zuben, egualdiya bere onetara etorririk.

Alako batean urrutia-xamarrera begiratzen det eta zer izango zan nere ikus-gaya, non ikusten detan gizon pilla bat alderatuaz Lezo aldera; bat batean abiyatu nitzan ayen bidera, jakiteko asmoan zer otezan, eta, ikusten ditut arrantzaleak zetozela guztiak ofutsik eta geyenak erdi jantziak. Beriala igarri nuan zer zan, ala ikusirk: Promesa bat!

—Zer dakartzute mutillak! —oju egin niyoten indarrez, lenbailen jakiteko asmoan ayen gertaera.

—A! jauna —alderatu zitzaidan ayetako bat eranzunaz. Gaur, gure Santo Kristo Lezo-koaren atietara, lenbailen allegatu naiean, Be-rari eskerrak ematera biotz guztitik!, bai!

—Eta jakin aleike zuben gertaera? —ostera esan nion.

—Bai, jauna, bai: orra bada, gaur goizian egun-sentia baño lenago, ateratzen giñan treñeroko lagun guztiak beren ontzian Pasaitikan, gure erriya, arrantzara! oraindik etzuben zenzurikan egunak argitzeko, bañan izar banaka batzubek diz-dizatzen zuten zeruban, eta abiyatu giñan itsaso barrenara, umore onian, arrau-nian gogor egitiaz, lenago aldeatzeko asmoan bertaratu behar genduben lekura.



Asten gera sariak botatzen, eta asi bagiñan asi giñan, senti genuben alako aixe motel bat ollaska banaka batzubekiñ, baña gauza pixka arrengatikan ez genuben uste okerragorik eta aguanta egin genduben bertan, zergatik esan gendubena, onenbeste bidean eterri ezkerro ez biurtu nai etxera esku utsik eta Kristoren pa-siyo pasiyo!

—Zaudet, zaudet piska bat —esan nion iku-sirik guztiz larritzen zala—: lenbizi artu zugun txurrutatxo bana, zure gorputzeko otzikara ori ateratzen ote degun. —Ez jauna, ez —segiran erantzun ziran—. Lenbiziko dakagun asmoa da, Santo Kristoren-gana bertaratzia, zergatikan Arren-gatik nere aita zar bakarra, ez da gelditu gaur semerikan gabe...!

Au esanaz barrendik atera zitzayon antsi bat-tek galaazi ziyon itza egitia.

—Beraz guztiz gaizki ibilliak izandu zerate?

—Gaizki —erantzun ziran bat batean, arri-arriturikan— lenbizi zirudien aize motela jarri zan arroturik puskutan nayan ontzia, bagak be-rrix asi ziran mendi zuriak ziruritela, odoiak ere beren zaparrarekiñ guztia estalirikan, eta an ikusiko du gizona estu eta larri: iñondik aditzen ez, iñondik laguntzik gabe, treñeroa o! koxkor baten gisa, gu berriz non nai toletetan edo killan, alkar ez giñala ikusten, noizian beñ azaldubaz tximist zorrotzen argi tartean, a! ura pena!, o zer samiña! Galdurik arkitzen giñan, ni bertatik jarri nintzan ondo Jaungoikoarekiñ, bañan gauza gogorra gelditzen zitzaidan go-goan. —Ikusirk gizon arren negarra eta guz-tizko nekea galdetu nion, aurtxo bat laztan-duko banuben bezela—. Zer zenakazun gogoan bada, zer?

—Zer? Nere Aita!

Ez datorkit itzik gogora adiarazitzeko zer atsekabea eragiñazo ziran nere gorputzean itz xamur arrek eta bitarte batean ixill-ixillik ar-kiñu giñan.

—Andik puxka batera —abiyatu zan gizona esanaz, arritasun batetik ateratzen geranian be-zela—, indarrak laja ginduzten bakarrik, dar-dar gorputz guztia genekagun otzarekiñ, erio-tza gure gaiñ zetorren eta zer izango zan gure atsegina, o Jaungoiko maitea! non egiten du egualdiyak jira eta bat batean kalma!... jiratu genuben ontzia alde onera, sartubaz barrenen, ez dakit nola (nusbait Jaunak laguntzen zigun), zergatik bestela gu iñola ez giñan gauza! Eta ala, ala ikusi genduben lagun danok alkar bizi-rik geundela eta orduban ez dakit poza edo pena sentitzen genuben, zergatik konturik ez genekagun. Andik denbora labur batean zer izango zan gure bigarrengoa atsegina, non sen-titzen degun Lezoko Santo Kristoren eleizako ezkill soñuba doi doian, bañan beriala igarri genuben meza nagusikoa zala, eta ordubantxen belaunikatu giñan gure Jaungoikoari eskerrak

emanaz, promesa egiñaz lenbiziko lurra jotzen genuben lekutikan juango giñala denok geunden bezela. Bere oñai muñ egitera...

—Eta dana galdurik, noski norbaitek ekarri zaituzte legorrera.

—Bai, jauna, bai —erantzun ziran zerbait ereturikan— bapore batek ekarri gaitu Pasaiarao.

Ordurako alderatu giñan danok, arrantzaleak ta ni eleizako ate-atietaraño, eta ordubantxen ere irtetzen zan barrendik, len ikusi nuben aiton txamar gorriduna arraxta-arraxtaka. Eta nere arrantzalea guztiz larritasun aundiarekiñ bat batean laztandu zuben bere besoetan, sekulako atsegüi gozoarekiñ.

Aita-semeak ziran!  
LA CAPILLA DEL SANTO CRISTO...

Tras la misa salí fuera de la iglesia; el cielo se veía azul por el lado del mar; escampó, y el tiempo se puso bueno.

En esto, miro un poco lejos y qué sería lo que veía que veo un grupo de personas que se acercaba hacia Lezo; inmediatamente salgo a su encuentro, con la idea de saber qué es lo que era, y veo que venían unos pescadores, todos descalzos y la mitad a medio vestir. Viéndolos así, adiviné en seguida de qué se trataba: ¡una promesa!

—¿Qué os trae, muchachos? —les grité fuerte, por saber cuánto antes lo que les había sucedido.

—¡Ah, señor! —se me acercó uno de ellos, contestándome—. Vamos a las puertas de nuestro Santo Cristo de Lezo, descando llegar cuánto antes a darle, sí, gracias de todo corazón.

—Y se puede saber lo que os ha sucedido? —volví a preguntarle.

—Sí, señor, sí; he ahí que esta mañana, antes de amanecer, salímos todos los compañeros de la trainera en nuestro barco desde Pasajes, nuestro pueblo, a pescar; todavía no había el menor vislumbre de rayar el día, pero brillaban en el cielo algunas estrellas aisladas; y nos dirigimos mar adentro, de buen humor, remando fuerte, con la intención de aproximarnos antes al lugar de nuestra llegada.

—Aguardad, aguarda un poco —le dije viendo que se apuraba mucho—, primero tomemos a cada traguito, por si disipamos ese escalofrío de tu cuerpo. —No, señor, no —me respondió en seguida—. Nuestra primera idea es llegar adonde el Santo Cristo, porque gracias a El mi anciano padre viudo no ha quedado hoy sin hijo.

Diciendo esto, un suspiro que le salió de dentro le impidió seguir.

—Por lo mismo, ¿habéis pasado mal?

—¡Mal! —me contestó de pronto, todo asombrado; el viento, que primero parecía calmo, se enfureció queriendo destrozar el barco, las

olas se encresparon como montañas blancas, y, hasta las nubes con sus chaparrones cubrían todo, y allí verá usted al hombre todo apurado y acongojado; sin ser escuchados ni socorridos por ninguna parte, la trainera como un trocito de tabla, y nosotros lo mismo en los escalmos que en la quilla, sin vernos los unos a los otros, apareciendo cada tanto entre el resplandor de los afilados relámpagos, jah, qué aflicción, qué amargura aquella! Nos veíamos perdidos; yo al punto me puse a bien, me reconcilié con Dios, pero me quedaba en el ánimo algo terrible.

Viendo el llanto y la tremenda fatiga de aquel hombre, le pregunté, como si abrazara a un niño: —¿Qué traías, pues, en el ánimo, qué?

—¿Qué? ¡A mi padre!

No encuentro palabras para explicar la desazón que me produjo en el cuerpo aquella tierna palabra, y durante un rato nos quedamos en silencio.

—De allí a poco —continuó diciendo el hombre, como cuando salimos de un asombro— nos abandonaron las fuerzas, el cuerpo nos temblaba todo del frío, se nos venía encima la muerte, y cuál no sería nuestro gozo, joh Dios amado!, que he aquí que cambia el tiempo y de pronto se hizo calma... enderezamos el barco, y nos metimos en él, como pudimos (sin duda, Dios nos ayudaba, porque de otra manera nosotros no éramos capaces de nada). Y así, vimos que estábamos vivos todos, y no sé si entonces sentíamos alegría o pena, pues no llevamos cuenta. De allí a poco tiempo, cuál sería nuestro segundo contento, que sentimos justamente el tañido de la campana del Santo Cristo de Lezo, y en seguida nos dimos cuenta que era el de la misa mayor; allí mismo, nos arrodillamos para dar gracias a Dios, haciendo la promesa de que desde el sitio donde primero tocásemos tierra iríamos como estábamos cada uno a besar sus pies...

—Y perdido todo, alguien os ha traído a tierra.

—Sí, señor, sí —me contestó reponiéndose un poco—, nos ha traído un vapor hasta Pasajes.

Para entonces todos, pescadores y yo, nos habíamos aproximado a las puertas de la iglesia, y entonces mismo salía de adentro, arrastrando los pies el abuelo de blusa colorada que antes había visto. Y mi pescador, con grande ansiedad, lo abrazó de pronto entre sus brazos, con immenseo placer y satisfacción.

¡Eran padre e hijo!

FRANTZISKO LOPEZ ALEN

(1889ean Donostian ospatutako

Lore Jokuetan lehenego saria)

**G V E R O**  
BI PARTETAN  
partitua eta beretia,

**L E H E N B I C I C O A N**

EMAITENDA, ADITCERA,  
enbatzale egutegiak dauen ilaga  
merinduak biltzeak, egutegiak  
gueratza uztzeak.

Egutegiak gueratza, leku  
guztua, ikus, bere hala, bere guneak  
dean, ikus, ikus, ikus...

Elezioen fundatza, Iñaki Dostal, eten  
eta ikurrina debonozteko elizate. Amara Sari  
taza erretiratzen da.

75. urteko urtarrilean Donostia, Gipuzkoa  
de la don, Enero 5.

**BORDILTZA**  
G. MILANDER. Estampa L.  
Castilla D. 1866  
M. DC. XLII



Hitanoaren galtza beraz, gaurko euskararen

Lezon badugu nafr kutsuko hitano polit eta kantaria, berezi-berezia dena. Zoritzan  
rrez ez dago oraindik azterturik, nahiz eta egunero hor ibili, danon ahoz aho. Izan dadila  
nire bildumatxo hau lezoar hitanoari egin nahi diodan omenalditzorik onena. Ikus ditzagun  
orain bere adizkiei dagozkien laukiak.

## LEZOKO HITANOAREKIKO

## HURBILTZE LANA

Zahar-zaharra dugu hika edo hitano de-  
ritzan tratamendua Euskal Herrian, zuka de-  
ritzana askoz berantiarragoa bait dugu gure  
artean. Badirudi zuka erderazko zenbait begi-  
runezko tratamenduen antzera sortua dela,  
eta aurretik gaurko «ZUEK»-en balorea zuela,  
gaur Nafarroako zenbait bazterretan oraindik  
erabiltzen den bezala.

Gaurko egoera negargarri, eroririk gau-  
den hamildegi honetan, euskara gauza asko  
galtzen ari da, eta okerrena dena, euskara  
bera galzorian dugu. Ez da harritzekoa beraz,  
euskaran eta erdararen imperialismoaren era-  
ginez, gertatzen ari diren zenbait fenomeno.  
aholeziaren barruan kokatu beharra daukagu.

### IZAN ADITZA

#### ORAIN ALDIA

naiz .....	NAK/NAN
zara .....	IAIZ
da .....	DUK/DUN
gara .....	GAITUK/GAITUN
dira .....	DITUK/DITUN

#### LEHEN ALDIA

nintzen .....	NIYUN/NIÑEN
zinen .....	ITZAN
zen .....	IUN-IUKEN/IUNEN
giñen .....	GIÑUN/GIÑUNEN
ziren .....	ZITUKEN/ZITUNEN

### UKAN ADITZA

#### ORAIN ALDIA (bakarra)

dut .....	DIT/DIÑET
duzu .....	DUK/DUN
du .....	DIK/DIN
dugu .....	IYAU/IÑAU
dute .....	DITEK/DITEN

#### LEHEN ALDIA (bakarra)

nuen .....	NIN/NIÑEN
zenuen .....	IUN-IUKEN
zuen .....	ZIN/ZIÑEN
genuen .....	GENIN/GENIÑEN
zuten .....	ZITEK/ZITEKEN/ ZITEÑEN

#### ORAIN ALDIA (anitza)

ditut .....	DIZKIT/DIZKIÑET
dituzu .....	DITUK/DITUN
ditu .....	DIZKIK/DIZKIN
ditugu .....	IZKIYAU/IZKIÑAU
dituzte .....	DIZKITET/DIZKITEM

#### LEHEN ALDIA (anitza)

nituen .....	NIZKIN/NIZKIÑEN
zenituen .....	IZKIUN/IZKIUKEN
zituen .....	ZIZKIN/ZIZKIÑEN
genituen .....	GENIZKIN/GENIZKIÑEN
zitzutzen .....	ZIZKITEK-ZIZKITEKEN/ ZIZKITENEN

## EGON ADITZA

	<b>ORAIN ALDIA</b>		<b>LEHEN ALDIA</b>
nago .....	NIOK/NION	nengoen .....	NIOKEN/NIONEN
zaude .....	IO	zeunden .....	IOKEN
dago .....	ZIOK/ZION	zegoen .....	ZIOKEN/ZIONEN
gaude .....	GAUDEK/GAUDEN	geunden .....	GENDUKEN/GENDUNEN
daude .....	ZIOZTEK/ZIOZTEN	zeuden .....	ZIOZTEKEN/ZIOZTENEN

## ETORRI ADITZA

	<b>ORAIN ALDIA</b>		<b>LEHEN ALDIA</b>
nator .....	HELDU NAK/NAN	nentorren .....	HELDU NIYUN/NIÑEN
zatoz .....	HELDU DIK/DIN	zentozzen .....	HELDU ITZAN
dator .....	HELDU DUK/DUN	zetorren .....	HELDU IUN/IUNEN
gatoz .....	HELDU IYAU/IÑAU	gentozzen .....	HELDU GIÑUN/GIÑUNEN
datoz .....	HELDU DITUK/DITUN	zetozen .....	HELDU ZITUKEN/ ZITUNEN

## JOAN ADITZA (ORAIN ALDIA)

	<b>JOAN ADITZA (ORAIN ALDIA)</b>		<b>IBILI ADITZA (ORAIN ALDIA)</b>
noa .....	NIEK/NIEN	nabil .....	NEBILEK/NEBILEN
zoaz .....	IUA	zabiltza .....	HABIL
doa .....	ZIJOAK/ZIJOAN	dabil .....	ZEBILEK/ZEBILEN
goaz .....	GOAZEK/GOAZEN	gabiltza .....	GABILTZAK/GABILTZAN
doaz .....	ZIJOAZEK/ZIJOAZEN	dabiltza .....	ZEBILTZEK/ZEBILTZEN

## JAKIN ADITZA

	<b>ORAIN ALDIA (bakarra)</b>		<b>LEHEN ALDIA (bakarra)</b>
dakit .....	ZEKIT/ZEKIÑET	nekien .....	NEKIKEN/NEKIÑEN
dakizu .....	DAKIK/DAKIN	zenekien .....	HEKIN
daki .....	ZEKIK/ZEKIN	zekien .....	ZEKIKEN/ZEKIÑEN
dakigu .....	ZEKIGUÑ/ZEKIÑUN	genekien .....	GENEKIKEN/GENEKIÑEN
dakite .....	ZEKITEK/ZEKITEN	zekiten .....	ZEKITEKEN/ZEKITENEN

	<b>ORAIN ALDIA (anitza)</b>		<b>LEHEN ALDIA (anitza)</b>
dakizkit .....	ZEKIZKIT/ZEKIZKIÑET	nekizkien .....	NEKIZKIKEN/NEKIZKIÑEN
dakizkizu .....	DAKIZKIK/DAKIZKIN	zenekizkien .....	HEKIZKIN
dakizki .....	ZEKIZKIK/ZEKIZKIN	zekizkien .....	ZEKIZKIKEN/ZEKIZKIÑEN
dakizkigu .....	ZEKIZKIGUK/ZEKIZKIGUN	genekizkien .....	GENEKIZKIKEN/(...)ÑEN
dakizkite .....	ZEKIZKITEK/ZEKIZKITEN	zekizkiten .....	ZEKIZKITEKEN/(...)NEN

## EDUKI ADITZA (ORAIN ALDIA)

	<b>EDUKI ADITZA (ORAIN ALDIA)</b>		<b>EKARRI ADITZA (ORAIN ALDIA)</b>
daukat .....	ZEUK(E)AT/ZEUKEÑAT	dakart .....	ZEKARRET/ZEKAR-NET
daukazu .....	DAUKAK/DAUKAN	dakarzu .....	DAKARK/-N
dauka .....	ZEUK(E)AK/ZEUK(E)AN	dakar .....	ZEKARREK/ZEKARREN
daukagu .....	ZEUK(E)AGUK/ZEUK(E)	dakargu .....	ZEKARGUK/ZEKARGUN
	AGUN	dakarte .....	ZEKARTEK/ZEKARTEN
daukate .....	ZEUKATEK/ZEUKATEN		

## NOR - NORI

	<b>ORAIN ALDIA (bakarra)</b>		<b>LEHEN ALDIA (bakarra)</b>
zait .....	ZAIEK/ZAIVEN	zitzaidan .....	ZITZAIDAKEN/ZITZAI- DANEN
zaizu .....	ZAIK/ZAIN	zitzaiun .....	ZITZAIKEN/ZITZAIÑEN
zaio .....	ZAIOK/ZAION	zitzaison .....	ZITZAIOKEN/ZITZAIONEN
zaigu .....	ZAIGUK/ZAIGUN	zitzaign .....	ZITZAIGUKEN/ZITZAI- GUNEN
zaie .....	ZAIOTEK/ZAIOTEN	zitzaien .....	ZITZAIOTEKEN/ZITZAIO- TENEN

	<b>ORAIN ALDIA (anitza)</b>		<b>LEHEN ALDIA (anitza)</b>
zaizkit .....	ZAIZKIEK/-N	zitzaizkidan .....	ZITZAIZKIDAKEN/-NEN
zaizkizu .....	ZAIZKIK/-N	zitzaizkizun .....	ZITZAIZKIKEN/-ÑEN
zaizkio .....	ZAIZKIOK/-N	zitzaizkion .....	ZITZAIZKIOKEN/-NEN
zaizkigu .....	ZAIZKIGUK/-N	zitzaizkigun .....	ZITZAIZKIGUKEN/-NEN
zaizkie .....	ZAIZKIOTEK/-N	zitzaizkien .....	ZITZAIZKIOTEKEN/-NEN

## NOR - NORI - NORK

### ORAIN ALDIA (bakarra)

diot .....	DIT/DIÑET
diozu .....	DIOK/DION
dio .....	ZIOK/ZION
diogu .....	ZIOGUK/ZIOGUN
diote .....	ZIOTEK/ZIOTEN
diet .....	DIOTEK/DIOTEN
dit .....	ZITEK/ZITEN
digu .....	ZIGUK/ZIGUN
die .....	ZIEK/ZIEN
diegu .....	ZIEGUK/ZIEGUN
digute .....	ZIGUTEK/ZIGUTEN
didate .....	ZIDATEK/ZIDATEN

### LEHEN ALDIA (bakarra)

nion .....	NIN/NIÑEN
zenion .....	IOKEN/IONEN
zion .....	ZIOKEN/ZIONEN
genion .....	GENIOKEN/GENIONEN
zioten .....	ZIOTEKEN/ZIOTENEN
nien .....	NIOTEKEN/NIOTENEN
zidan .....	ZIDATEKEN/ZIDATENEN
zigun .....	ZIGUTEKEN/ZIGUTENEN
zien .....	ZIETEKEN/ZIETENEN
genien .....	GENIOTEKEN/GENIOTENEN
ziguten .....	ZIGUTEKEN/ZIGUTENEN
zidaten .....	ZIDATEKEN/ZIDATENEN

### ORAIN ALDIA (anitza)

dizkiot .....	DIZKIT/DIZKIÑET
dizkiozu .....	DIZKIOK/-N
dizkio .....	ZIZKIOK/-N
dizkiogu .....	ZIZKIOGUK/-N
dizkiote .....	ZIZKIOTEK/-N
dizkiet .....	DIZKIOTEK/-N
dizkit .....	DIZKITEK/-N
dizkigu .....	ZIZKIGUK/-N
dizkie .....	ZIZKIEK/-N
dizkiegu .....	ZIZKIEGUK/-N
dizkigute .....	ZIZKIGUTEK/-N
dizkidate .....	ZIZKIDATEK/-N

### LEHEN ALDIA (anitza)

nizkion .....	NIZKAN/NIZKINEN
zenizkion .....	IZKIOKEN/IZKIONEN
zizkion .....	ZIOZKAN/ZIZKIONEN
genizkion .....	GENIZKAN/GENIZKIONEN
zizkioten .....	ZIZKIOTEKEN/-NEN
nizkien .....	NIZKIOTEKEN/-NEN
zizkidan .....	ZIZKIDATEKEN/-NEN
zizkigun .....	ZIZKIGUTEKEN/-NEN
zizkien .....	ZIZKIETEKEN/-NEN
genizkien .....	GENIOZTEKEN/-NEN
zizkiguten .....	ZIZKIGUTEKEN/-NEN
zizkidaten .....	ZIZKIDATEKEN/-NEN

**OHARRA:** Lezon NOR-NORK izeneko aditz sistema ez da oso regularki erabiltzen, bere tokian askotan NOR-NORI-NORK izenekoa erabiltzen bait da, honako gauzak aditzen direlarik: ikusi dit, ikusi nin...

Egia esan ez zait oso erraza egin honelako bildumatxoa burutzea, askotan gauza bera esateko bi edo hiru adizki ezberdin erabiltzen bait dira. Oso maiz nekazal arloan eta kalean erabiltzen direnak ez dira berdinak izaten, eta pertsona berak askotan bi edo hiru adizki ezberdin erabiltzen ditu gauza bera adierazi nahian.

Han eta hemen ibili naiz galdezka oso erantzun ezberdinak jasotzen, baina hala ere joera regular bat nabaritzen denez, horixe izan da ni bildumatxo honetan azaltzen saiatu naizena. Nire ustez oso nahasmen haundia dago Lezoko hitanoan, bertan korapilatzen bait dira garai bateko adizki nafar zaharrak, aintzinekoak, eta gure bizilagun gipuzkeradunenak. Horregatik askotan oso zaila egiten da koadro batetan adizki horiek modu logiko batez ipintzea.

Badakit jende asko ez dela ados egongo nik hemen ipinitakoarekin, eta konplexidade zabal hau buruan izaki, guztiz normala iruditzen zalt. Horregatik eskatuko nizueke bestelako irlitziak dituzuenei hemen, aldizkari honen orriean kalera ditzazuela, honela denon artean hobeto ezagutu dezagun gure hika gozoa, gure hitano zaharraren edertasun eta musikalidadea. Esanetara.

# O GALEUZCA



No ano 1923, o dia 11 de Setembro, asinábase en Barcelona a «Triple Alianza», avinza dos nazonalistas vascos, galegos e cataláns pala que percuraban, perante un bloco unitario, o conquerimento da libertade e soberanía das suas respeitivas Pátrias. O estalo do foguete militar na persoa do ditador Primo de Rivera, imposibilitou a prase do pacto.

Na II República novamente as tres nacións, baixo a representazón de case tódalas suas forzas nazonalistas selaban o Pacto de Compostela ou Galeuzca o 25 de Xullo de 1933, agasallados pola pétreu humidade da cibdade do Apóstolo.

As relazóns cordiais e fraternais percorrererían decote os contactos entre os nazonalistas das tres Pátrias asoballadas perante o resto da República e os tristeiros anos da Guerra Civil e o exilio.

Bós Aires, a capital da Arxentina, Caracas e México serían espellos mudos diste camiñar e acontecer solidarios perante a longa noite de perda do Franquismo.

O 22 de Nadal de 1944 asinariase en México un novo pacto Galeuzca, cuxa cópia ácahase entre os meus papeis documentais gardada como ouro en pano.

Gostosamente a insiro neste sinxelo i emocionado artigo para aguilloar a solidaridade entre os galegos e os euskaldúns, tanto os radicados en Lezo coma os espalladas por la ridente i accolledora xeografía euskaniana. Temos moitos vencellos comúns e, sobre todo, un norde que nos xungue; a defensa dos nosos dereitos irrenunciabels. Cecais nun porvir non lonxano as bágoas que oxe esbaran no cristal do vento cántabro sexan a ricaz semente do sol da libertade.

En México, na invernía de 1944, os nosos persoeiros exiliados percurban conxuntamente a morna quentura vranceira da soberanía nazonal ó traveso diste pacto, cuxo teor insiro.

«Os persoeiros das orgaizacions Euzko Alderdi Jeltzalia, Euzko Langile Alkartasuna, Partido Galeguista (Delegación en México), Ezquerra Republicana de Catalunya (Secretariat de Méxic), Estat Catalá, Acció Catalana, Partit Socialista Catalá, Comunitat Catalana e Unió de Cataláns Independentistes, declaran que teñen chegado ao establecimento dun pacto que ten os seus antecedentes en acordos de alianza celebrados noutrora e na solidaridade sinada co sangue dos seus mártires, axeitado ás seguintes bases:

1.<sup>a</sup> Atópanse rexamente decididos a intensificaren pola aición conxunta de Galiza, Cataluña i Euzkadi, os esforzos que veñen realizando contra do réxime tiránico e totalitario do xeneral Franco, ata conqueril-o derrubamento do devandito réxime.

2.<sup>a</sup> Oporánse a todo intento de restauración monárquica - antipopular e antidemocrática-eisí coma a todo réxime que non sexa aceptado polas vontades libres e soberanas dos seus respeitivos povos.

3.<sup>a</sup> Procraman, unha vez máis, que Euzkadi, Cataluña e Galiza constituien, polos seus tíduos históricos e lingüísticos, polas súas características culturales e polas súas tradicións políticas, tres nacións craramente defiñidas, con vontade nacional decote eispresada, e demandan pra elas os dereitos fundamentaes que a toda nación lle corresponden no concerto dos povos civilizados, como son: a súa liberdade, a súa so-

beranía e o seu dereito de autodeterminación, postulados polos que loitan as Nacións Unidas contra o feixismo internacional.

4.<sup>a</sup> Comprometéñse a defenderen pra os seus respeitivos povos un réxime repubicán e democrático, afincado no respeto a liberdade e dignidade da persoa humán e inspirado en degoiros de xusticia social.

5.<sup>a</sup> O avencellamento dos povos somentes pode ser eficinte, fecundo e duradeiro meiante o respeto as súas persoalidades e sóbor da base do pacto libre e vóntario.


6.<sup>a</sup> Pra manteren os presentes acordos, córdinaren e dirixiren a laboura conxunta que as circunstancias eisixen e realizaren unha aición defensora dos dereitos de Cataluña, Galiza i Euzkadi, en todas las esferas e ordes, constituien un orgaismo que denomiñarase GALEUZCA, integrado polos persoeiros das orgaizacions galegas, vascas e cataláns.

O presente pacto redaitase por triplicado na tres línguas: galega, vasca e catalá e asinase na cibdade de México o 22 de Decembro de 1944.»

O paciente leito poderá disfrutar de gorenteiras resultas, si ten a ben agarimar ca ledicia dos seus ollos istas mal enxergadas liñas. O que os nosos devanceiros acordaron en México, por qué non o podemos anovar nós, agora, niste intre tan perigoso para a soberanía das nosas Pátrias?

XOSE ESTEVEZ  
(Historiador e membro de «Euskarria», Asociación para a autodeterminación de Euskalherria»)

## Ikurriña, Arrano beltza eta Nafarroako kateak



Gaurko euskaldunok gure banderaz hitzegiten dugunean, mende honen hasiera aldean Koldo eta Sabino Arana anaiek asmatutako ikurrinaz hitzegiten dugu. Ordu ezkerotzik, euskal paisaia eta izatearen oinarrizko koloreak hartzen dituen bandera bigurutzedun hau, euskaldun guztion ikurtzat harturik izan da. Baionatik Tuteraino eta Erronkaritik Karrantzaraino. Bera da euskal nazioaren arima estetiko, izpiritual eta politikoa biltzen duen sinbolea. Lasterka eta presaka, bere libertateak, bere nortasuna, bere izate berezia eta bere askatasunezko itxaropenak garantizatuko dituen estatu baten bila doan euskal nazioaren bandera. Elkarrekin lotzen diren bigurutze, bata zuria, horlegia bestea, eta atzean, hondoan gorria. Kolore hauek eta beraien konbinazioak euskaldunen gaurko izatea eta biharko izate nahia sinbolizatzen dute.

Hala eta guztiz ere, ikurriña ez da euskaldunen bandera bakarra. Gure historian zehar, beste nazioen aurrean ezagutarazi gaituzten bestelako sinboleoak izan bait ditugu ere. Agian zaharra, ARRANO BELTZA izenekoa daukagu. Gure arbasoek Erdi Aroko bukaera aldean eta Moderno Aroko hastepenetan erabili zutena. Hondo horia gure gari soroak eta gure base-rritarren nekazal lana adieraziz, eta Euskal Herria bitan banatzen duen mendikateko arrano beltza erdi aldean. Mendikate honek bitan banatzen du gure aberria, kontinentala

izenekoa, Lapurdi, Zuberoa eta Behe-nafarroa izeneko herrialdeak biltzen dituen eremu ipartarra; eta penintsularra, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarro Haundia biltzen duen alderdi zabala alegia. Bera izan da urte luzeetan eta da oraindik gaur egun, gure gailurretako biztanlea, gure haran eta ibarretako zentinela, gure gizon-emakumeen bizilaguna. Gure artzaiena eta gure nekazariena, gure arrantzaleena eta gure segalarientzat, eta baita gure errege eta gure gudariena ere. Hegazti apal eta dotore era berean. Gure gertakizun historikoen ikusle mutua. Gure bizkar-hezurreko tontorretan mendeetan zehar, kabia jarri duen harrapakaria. Gure bizilagu-



*nak diren espinarrek «Pirineos» deitzen duten, gure iparraldeko bizi-lagun diren frantsesek «Pyrénées» izenez ezagutzen duten, eta guk euskaldunok Auñamendi edo ahuntzen mendiak bataiatu ditugun mendietan apal eta libre bizi zaren arrano beltz apaina.*

*Arrano Beltza deritzana urte luze-tan izan da aizager gure gerlarien pendoietan, gure erregeen gaztelue-tan, eta nola ez, gure arbasoen biho-tzeten. Bandera erregetiar eta herri-koia denbora berean, pakea eta gerra-ren bandera, zuzentasuna eta anarkia libertarioaren ikurra. Dirudienez, ban-derra hau Navas de Tolosako gatazka-ren ondoren bazterturik gelditu zen, eta bere tokian, Santxo gure erregek Miramamolin izeneko errege mairua babesten zuten kateak jarri zituen, behin mairuei kendu ezkerro. Euskal-dunok irabazi genuen, gure bizilagun sasietsai ziren gaztelarrak musulma-nen menpetik salbatu zituen gudate hura. Eta gero, garaipen honi esker, gaztelarren armak Euskal Herriko lu-rraldeetara okertu ahal izan ziren.*


*Garai haietatik, eta Nafarroako Erresumaren amaiera arte, gure erre-geek kateak erabili zituzten beren pendoi eta armarietan, euskal monarkiaren sinbolo moduan. Nafarroa erortzerakoan, bandera edo sinbolo honen erakilkaera galdu agir zea, ato euskaldunok XX. menderarte ez dugu beste ikur nazionalik eduki.*

*Gaurko euskaldunok hiru banderak darabilzkigu. Gure nazioaren eta bi-harko Euskadi independientearen sin-boloa den ikurriña bigurutzeduna. Euskal Nazio Askapen Mugimendua-ren sinbolo bihurturik dagoen Arrano Beltza, eta gure herrialderik haundi-eña den Nafarroako bandera bezala, Nafarroako kateak izenekoa. Badago tokia hirurentzako, eta baita askata-sunezko etorkizun bat euskaldun guz-tientzako ere.*

## « IKURRIÑA, ARRANO BELTZA...»

Cuando los vascos de hoy hablamos de nuestra bandera hablamos de la ikurriña, bandera bicrucifera creada por los hermanos Koldo y Sabino Arana a comienzo de siglo. Desde entonces esta bandera que aúna los colores primordiales del ser y del paisaje vasco ha sido considerada por todos los vascos desde Baiona a Tutera y desde Erronkari a Karrantza, como el símbolo que sintetiza el alma estética, espiritual y política de la nación vasca. Una nación vasca que cabalga rápidamente hacia la consecución de un estado que garantice sus libertades, su idiosincrasia, su personalidad y sus esperanzas de libertad. Dos cruces que se entrecruzan, una blanca y la otra verde sobre un fondo rojo sintetizan todo el actual ser y querer ser para el mañana de los vascos.

Sin embargo, la ikurriña no es la única bandera de los vascos. A lo largo de nuestra larga historia hemos tenido otros símbolos que nos han avalado simbólicamente ante las de-



más naciones. Quizás la más antigua sea la denominada «ARRANO BEL-TZA» (Aguila Negra), que utilizaron nuestros antepasados en épocas medievales y comienzos de la Edad Moderna. Fondo amarillo, símbolo de nuestros campos de trigo, del trabajo agrícola de nuestros baserritarras, y el águila negra vasca, hermoso y valiente morador de la cadena montañosa que divide a Euskal Herria o Euskadi en dos vertientes, una continental con las regiones de Lapurdi, Zuberoa y Behenafarroa, y otra peninsular con las de Gipuzkoa, Bizkaia, Araba y Nafarroa. Morador majestuoso, centinela de nuestras elevadas cumbres, compañero histórico de nuestros hombres y mujeres, de nuestros artzaias (pastores) y de nuestros ne-kazaris (agricultores), de nuestros arrantzales (pescadores) y de nuestros segalaris (segadores), de nuestros erreges (reyes) y de nuestros guardias (soldados). Ave sencilla y principesca al mismo tiempo. Vigilante de nuestras vicisitudes históricas.

Aguila negra que ha anidado durante siglos en las cumbres de nuestra espina dorsal. Esos montes a los que nuestros vecinos los españoles denominan Pirineos, los vecinos franceses del norte Pirenaeas y nosotros Auña mendi o montes de cabras.


El Arrano Beltza ha ondeado durante siglos en los estandartes de nuestros guerreros, en los palacios de nuestros reyes, y en los corazones de nuestros antepasados. Bandera real y popular al mismo tiempo, bandera de guerra y de paz, de justicia y de anarquía libertaria. Al parecer esta bandera cayó en desuso a partir de la batalla de las Navas de Tolosa, en la que nuestro rey Santxo se apoderó de las cadenas que protegían al rey moro Miramamolín. Los vascos ganamos la batalla que libraría más tarde a nuestros belicosos vecinos castellanos

del peligro musulmán y que luego daría libertad de maniobra para que sus armas apuntasen peligrosamente nuestras tierras.

Desde entonces nuestros reyes y hasta el final de la monarquía vasca utilizaron como emblema y arma de sus escudos, las cadenas de Nafarroa. Al caer Nafarroa ante el empuje de los monarcas castellanos, se perdió la utilización de este símbolo como emblema nacional, y los vascos hemos carecido de bandera aglutinante hasta el nacimiento de nuestra actual ikurriña.

Hoy día los vascos utilizamos las tres banderas, la ikurriña como símbolo de nuestra nación y de su proyecto como estado independiente, el Arrano Beltza como símbolo del Movimiento Vasco de Liberación Nacional, y las cadenas de Nafarroa, como símbolo de nuestra región histórica más grande. Hay sitio para las tres y un futuro de libertad para todos los vascos.

ZABARRE



## LEZO 3.025 urtean

—Suspe zanpa ezak denboramakinaren botoi gorria, nahi diat denbora 1989. urtera atzeratu, nire arbaso zaharra izan huan Martxiel Pikabearekin solas aspertu bat izateko!

—Aipatutako Suspe(rregi?) izenekoak aurrean duen denboramakina erraldoia-ren botoi gorria zanpatu, eta aurrez aurreko pantaila dimentsioanizdunean irudiak bortizki mugitzen hasten dira. Berrogeigarren mendeko irudi ñabar-karretuak desagertzen joaten dira eta amen batetan hogeigarren mendeko irudi horlegi-argitsuetara igarotzen dira. Berehala eta egokitze sistima berriari eskerrak, aurre aurrean Martxiel Pikabea bera azaltzen zaie. Bapatean, agindua emana duena pantailara gerturatu eta sartu egiten da, Lezo-ko Kale Nagusitik barrena bakar bakarrik doan gizon gazte batengana hurbilduz.

—Kaixo Martxiel, ez nauk ezagutzen, baina hire iloba, Iban Pikabea nauk.

—Baina zer diok motel! —erantzuten dio Martxielek, harridura gainetik kendu ezinean—. Burutik al hago?, nik ez diat ez ilobarik, ez seme-alabarik. Izatekotan ez diat ezta andregaiarik ere!

—Bai, bazekiat, oraindik ez dituk, baina lau urte barru ezkonduko naiz eta hurrengo urterako hire lehenengo semea izango duk. Ni nauk hire seme horren ondorengo zuzena. Ez zekiat oraindik zein gradutan, baina hala nauk hire ondoren-goa.

—Hi ez hago ondo kaxkotik. Gaurko eguzkiak nahastu egin dizkik hire gogotak, eta orain erokerietan ari haiz. Beste esplikaziorik ez zegok.

—Ez, ez Martxiel —besotik helduz— hirre iloba nauk. Bazekiat zein zaila duken ulertzeko, baina hala nauk.

—Ospa motel, alde egin ezak hemendik eta utz nazak pake santuan! Nire iloba


diok, eta hire antzak ni baino zaharragoa haizela salatzen dik.

—Ez duk gezurrik esaten, benetan absolutoz hitzegiten, mila eta hogeい ta hamasei urte ateratzen dizkidak, baina honela biok parean denbora erlatiboan, orain gaude bezala, hik baino sei urte gehiago dizkiat. Hik orain hemeretzi-hogeい bat urte izango bait dituk, eta nik berriz hogeitabat.

—Hara, nire adina ere ba al dakik? Ez zegok gaizki. Esaidak benetan txorakeriak bazterean utzita, zein haiz hi? Ez al haiz sanjuandarra?, edo oiartzuarra bestela? Holako trazik harrapatzen bait diat.

—Ez, ni lezotarra nauk, hi bezelako lezotarra.

—Motel, motel..., adarrik jo ez! Beizak, hortik heldu direnak alkatea eta apaiza dituk. Lezotarra ba haiz benetan, hik esaten duken bezala, beraiek ezagutuko hau-te. Mikel, Jose Luis....!!! —hurbiltzen diereni ozenki deika.



—Baina Ibanek ez du denborarik galtzen eta Martxiel besotik irmoki helduz, kolkoan zintzilik daraman minidenboragailuaren itzultzea botoia zanpatzen du. Iban eta Martxilen gorputzak desagertzen dira pixkanaka pixkanaka, alkatea eta apaizaren begi harrituen aurrean inolako arrastorik utzi gabe.

—Mikel ikusi al duk nik ikusi dudana?

—Bai Jose Luis, ikusi diat, edo hobeto esanda, ez diat ikusi. Egia esan ez zekiat...

—Presenek Aizpean eman digun ardoaren eragina izango ote?

—Bitartean 3025. urtean.

—Hor al hago Iban?, itzuli al haiz?

—Bai Suspe, hemen nagok berriro ere, baina lagunduta.

—Baina Iban, hik soberan dakik gure Eguzki Sistemako Federakuntzaren Gobernuak gure aurrekoak denborez mugitzea gogorki galerazten duela eta gainera heriotz penarekin zigortzen duela. Eta hala ere arriskatzen haiz hire burua eta nirea hilzorian ipiniz. Honetatik komuna elektrikoan bukatuko diagu!

—Ez nian beste biderik Suspe. Sinis nazak.

—Hiri sinistu. Ez dakik ondo zer eskatzen duken.

—Utz itzak atso nigarrak bazterrean eta lagun nazak nire aiton zahar honekin. Ge-hiegi izan duk berarentzat eta konorterik gabe gelditu zaidak. Eta lasai egon, niregandik ez bait dik inoiz honetaz ezer jakingo. Hitz ematen diat.

—Hitz eman, hitz eman..., ikusiko diagu!

—Bostpasei minutu nahikoak izan dira gure Martxielek konortea errekupera dezan. Ez du deus ulertzen, baina bere ondoan dagoen guztia ikusirik, Iban eta Superen esanetaz sinistea, besterik ezin du egin. Zeharo harriturik, alde batera eta bestera begiratzen du, gela zabal-haundi hortan dauden tresneria eta altzari bitxi koloretsuetaz bere ulerezinezko begirada pausatzen. Horren bitxia da bere aurrean duen guztia ezin dezakeela ulertu nola, zergatik eta zertarako eginda dauden.

—Zer harriturik hemengo tresneriarekin ala? —galde egiten dio Ibanek Martxielen mugagabeko harriduraz oharturik—. Zer iruditzen zaik dana hau?

—Iruditu, iruditu..., egia esan, ez diat oraindik denborarik izan inolako irizpiderik hartzeko, zeharo nahasturik bait nauk. Ez diat inoiz holakorik izan zitekeenik pentsatu egin, ezta burutik pasa ere.

—Ja ja ja...! Martxiel, pentsatzen diat ez dukela erraza hiretzat. Eta ikusiko bahuen gure kanpoko mundua nolakoa den, oraindik askoz gehiago harrituko hintzateke.

—Baina Iban —moztzen dio Suspek, arras urduri—, ez duk pentsatuko aintzinateko gizon hau kanpo aldera atera? Ondotxo dakik hik federakuntzazainek bazter guztiak bijilatzen dituztela eta zein nolako zigorra emango liguteke gizon honekin harrapatuz gero!

—Bai lagun, ondo zekiat, baina behin gure gaurko mundura ekarri ondoren, ez ote dik merezi mende hontako mundua ikustea?

—Eroturik hago, behin eta berriro erre-pikatzen diat. Nirekin ez kontatu deuse-rako. Hik egin ezak nahi dukena, nik ez diat ezer jakin nahi. Ez diat salatuko. Trankil egon horregatik bada ere!

—Eskerrik asko. Hitz ematen diat inork ez duela honetaz inoiz ezer jakingo.

—Baina Iban! —moztzen dio Martxielek— nik ez diat deus ikusteko gogorik. Lezora itzul nazazue lehenbaitlehen eta kitto!

—Lasai egon motel. Segituan itzuliko haiz 1989ko Lezora, baina itzuli aurretik gaurko Lezo nolakoa den erakutsiko diat.

—Beizak, hori bai ikusi nahiko nuela, ahal baduk behintzat.

—Horixe baietz. Etor hadi nirekin, berhalera erakutsiko bait diat.

—Hauxe esanda, altxatzen dira biak, eta gelako bazter batetan, Marxielentzako su-positorio baten tankera duen aparailu ba-tetan sartzen dira.

—Hauxe duk konparazio batean —dio Ibanek Martxielen aurpegira begiratuz— zuen garaiko berebilaren antzekoa, baina hegalaria!

—Ibanen eskuak eserita dauden eserlekuaren aurreko botoi koadroan zanpatzen du behin eta berriro. Hamaika argipizten dira beren more, gorri, horlegi, laranja... eta beste kolore askoren dardarekin gure bi lagunak eserita dauden kabina kolorez betetzen. Ibanek botoi more bat zanpatzerakoan aurreko pareta irekitzen da eta tutu moduko pasilu luze batetik abiatzen da ontzia. Inxtan batzuk ondoren argira irteten dira.

---

—Airean gaituk motel, supositorio hau Hondarribiako hegazkinak baino hobea goa duk. Honen habaila!

—Bai, laborategitik atera gaituk eta aidentik erakutsiko diat gaurko Lezo. Beizak, hori duk! Han behean zegok!

—Zer ari haiz esaten. Beheko hori kaxa erraldoi baten moduko zeredozer duk!

—Bai Martxiel, hori duk gaurko Lezo. Lau kilometro zabal eta zortzi kilometro luze hartzen duen hogei ta hamar solairuzko eraikuntza erraldoia. 35.000 lezotar bizi ditukbertan eta udaletxea goiko aldeko solairuko terrazan kokaturik zegok. Ikusten al duk?, han, ikusten den plaza zabal hartan!

—Plaza jendez gainezka zegok, eta ematen dik jendetza dantzan ari dela.

—Bai hala duk. Santakrutzak dituk eta une honetan Josetxo Garmendia alkatea banderak ari da zabaltzen: Lezoko, euskal ikurrina eta gure Eguzki Sistemako Federakuntzaren bandera horlegi-horia. Badakik festak beti festa. Hiru mendetik ekarri haugunean otsaila huan, baina hemen irailean gaudek. Badakik denbora ezberdinena gora-beherak.

—Egia esan, iadanik ez nauk ezertaz harritzen. Nire amonak ederki zian: «Hamaikak ikusteko jaioak gaituk!». Ez ziizaioan bat ere arrazoirik falta. Gaixoa!


—Han, eraikuntzaren saihetsean dagoeña, Jaizkibel mendia duk, eta ondoko eremu zabal gorri hura itsasoa.

—Mendi ttiki hori Jaizkibel al duk?

—Ez duk ttikia, baina eraikuntza mamuhorren parean, ttikia gelditzen zaiguk.

—Eta itsasoari, zer gertatu zaiok itsasori?, nire denboretan urdina huan eta ez gorria.

—Bain, lehen orain dela urte luze hala huan, baina gizonak urteetan sortutako kutsadurak bere kolorea aldatu zioan, beltz-ilun tankerakoa eta guztiz bizirik gabea bihurtuz. Gure jakintsuek erreperatu nahi izan ziaten, eta hortarako Alfa 200 planetatik ekarritako biosubstanzia baten bidez, berpiztu ziaten itsasoa, ura kolore gorri tintatuz eta itsaso zabalera gure planeta hontan ezagunik ez huan fauna berri eta ugari batez josiz. Honi eskerrak gaur ez zaiguk jakirik falta. Jaizkibelen baso haundiak dizkiagu, baina ehiza guztiz galerazirik zegok. Eraikuntzaren hamaseigarren solairuan eta eguzki artifizial bati eskerrak, nekazal eskuadea diagut, eta bertan aritzen dituk 10.000 nekazal zientzilari inguru. Ikus ahal dukenez, haragia eta barazkiak ez zaizkiguk falta ere ez. Bestaldez, esan beharra zegok, Jaizkibeleko magaletan landatu hituan sagarrondo ugarietatik urtero oso



sagar uzta ederra jasotzen dugula, eta gure sagardotegietara beste eraikuntzetatik, bai Oneretatik, bai Pasaiatik, bai Donostiatik eta baita urrunagotik ere, jende mordoxka etortzen zaigula.

—Harrigarria, ezin diat sinistu. Eta Santo Kristo ospetsuari zer gertatu zaiok?

—Deus ez. Lehenengo solairuan kokaturik zegok, San Joan Bataiatzailearen elizarekin batera. Erlilio askatasuna diagu gure artean, baina badago oraindik jende franko kristau izaten jarraitzen duena, eta elizara joaten dena. Bikarioa Martin Etxeberria duk, oso gizon zintzo eta jatorra, sei seme-alaben aita.

—Sei seme-alaben aita diok? Baina apaizak orain ezkontzen al dituk?

—Aspaldi motel, eta gainera beren sismen erlijiosoei tinkoz jarraituz, oso emankorrik izaten dituk.

— Ez zegok gaizki, baten bati kontatu beharko zioat nire garaira itzultzerakoan.

—Kontuz Martxiel!, makur hadi! Gure ondotik horren abiada bizian pasa diren horiek federakuntzazainak hituan. Ez diat uste ikusi hautenik, baina bazpare hobe izango diagu lehenbaitlehen laborategira itzultzea.

—Esan eta egin. Inxtant batean sartu bait dira laborategiko kanpo atetik eta tutua bortizki igaroz, laborategiko denboramakinaren pantaila erraldoi dimentsioanizdunaren aurrean ipini dira.

—Agur aitona Martxiel! Ez haut ahaztuko! Berehala boltatuko haiz 1989ko Lezora, baina ez kontatu inori ezer. Ez ahaztu sekula mesedes, nire lepoa jokoan bait zegok.

—Agur Iban! Bildurrik ez izan, ez bait zioat inori deus esango. Agur iloba nerea!

—Ibanek bere aurreko koadroko itzultze botoia zanpatzen du eta Martxielen gorputza desagertzen hasten da. Hasieran txingurri tropel batez bihurturik balego bezala, eta gero begibistatik erabat desagertzeo.

—Ene maite, ene maite, ene maite Kattalin, sekulako ta betiko galdu zaitut Kattalin...!

—Berriro 1989ko otsailaren 20an gaude. Giro sargoriotsu egiten du, eta ilunabarrreko tenorean kantaren soinuak aidea hausten du.

—Ene maite, ene maite, ene maite Kattalin...

Nor ote, Txato..., edo agian Txepito? Auskalo!

Koadrila bat heldu da kaletik barrena. Uztarri tabernatik heldu dira eta badirudi Plazako Aizpeara doazela. Holako batean, koadrilako batek Santo Kristoren Sakristia aurreko txokoan seko etzanda, gizon baten gorputza ikusten du.

—Beizak Patxi! Hori ez al duk Martxiel?

—Bai hala duk, eta atxurra galantarekin gainera. Lagundu nazak, eta bere etxera eramango diagu. Martxiel esna hadi! Antton nauk, hire laguna! Martxiel esnatu, etxera eramango haugu! —Martxielen aurpegian kolpetxo batzuk emanez—.

—Eee! —Martxielek, bere baitara itzuliz—, ez duk ezer! Ondo nagok. Erori nauk eta... Ez diat ezer. Ondo nagok!

—Ondo?, ondo beteta zerri hori!

—Ez, ez, ez... Ez duk hori. Ez duk hik pentsatzen dukena. Ez duk ezer. Goazemak Aizpeara eta txikito batzuk pagatuko dizkizuet. Goazemak!!!

KARLOX BARRENTSORO

# *Harriak mintzo balira*



Egungentzia iluna da, kaleak bakanrik daude, gutxi dira goizeko seiretan handik-onia abiatzen direnak. Noizbehinka kantoi batetik halako aurpegi lokartua, beste egun berri landun hau jasan ezinik, albora begiratuz, zigarroa lurrerantz jaurtikitzen, eskuak gabardinaren poltsikoan sartuz eta pausoak astunago oraindik beharbada, asfaltoa zapaltzen dute hurrengo eskinaruntz abiatuz, bira itsu batez eskubialdera sartzeko.

(Norbait etorriko balitz aurrez-aurre, eta topo egingo bagenu... muturra apurtuko nioke...)

Kale hestuak etengabeko harrizko marra batez, elkar jarraitzen dute den da itxi eta taberna erdi zabaldu batzuen atek zeharkatuz; norbaiteren oinak daude agerian ertzean.

—Ez da asko ikusten atari honetatik aurreko enparantza txiki hau ez bada, bere estatua danborileroa, eguneroko usoen kakaz horniturik. Egia esan, danborilero harritu honek egunetik egunera aurpegi okerragoa duela dirudi. Ez ote zaizkio gustatzen usoen oparitxo usaintsuak?

Zazpirak. Orain jaitsiko da eskailera erdoildu-zaratatsu honetatik Josefina, betilun. Atea zabaldu, kanpora begiratu, hobe esan, zerura begiratu ea zer dagoen, euri ala eguzki, berdin da; beti bere guardasol erraldoi horrekin jaitsiko du azken harrizko ene eskilara hau, alde bietara begiratuz, hormari jarraituz eskubitik ka-lean gora joateko.

Gaur Ostirala denez gero, girotxoa izango dugu alboko tabernan. Ea animatzen den enparantza nimino hau!

Harriok ez bihotzik ez moralik ez dugunez gero, berdin zaigu neska jantzi-orraztu berriak, nahiz pelukeriatiak usaintsu atera-berri diren mutil mazizoak, edo arratsaldeko azken «kolgatua» edo betiko mozkor masail gorria, zein apaiz betaurrekodun gona luze edota punki gangor-zorrotzduna igarotzea gure aurretik; gauza da jendea izatea, jende berria ahal dela eta gertakizun zahar-berriak izatea, zerbait kontatzeko izan dezagun.

—Zeren zuek ez dakizue edo agian bai, zein aspergarria den eguneroko ezer ez gertatzearen denbora joana. Ni ere zahartzen noa eta gaztetan harri sendo-argitsua izan banintz ere, gero eta zulo handiagoa egiten didate txakur txisalariak, banatzai-leen furgoneta topekariak, umeek nire aurka darabilzkiten mailuak... (ama datorrenerako koska ederra egina didate ume aluok...) eta abar luze erasotzaile batek. Kontatu, kontatzea da nik nahi dudana. Alboko harriari, harek besteari, besteak nere ondokoari, hark neri eta honela poliki poliki, badakigu bai, gure alde zaharrean gertatuko gauzen berri, ez pentsa! Alboko tabernan entzuten da sukaldean olío zipristina, pintxo berri-koloretsuen aitzindari (lehio gaineko harriek diotenez).



Agertzen dira eguardi-aldeko lehen poteatzaleek beren begi antsi-gosetuak mostradore gaineko pintxoengan pausatzeko, txistua motibatzeko, edaria edateko elkarri lauzpabost gauza pijo-ez-hain-pijoak esateko, txanpoiak zaratatsu uzteko, eta bost agur bota ondoren hurrengo tabernara artalde zaratatsu gisa joateko.

—Gaur libratu naiz, poteo-taldeko azkenak ez du bota ohi duen bezala puzker isil-usaintsua, jandako banderilaren adierazle.

...Handik ordu batera, kantoiko harri bikoitzak esan dit gaur bakailu puzkerra bota duela.

Zuri, kontu honen irakurle zarenari, berbetan ari natzaizun bitartean noski, jende pilo igaro da, ez nire begien aurretik nik ez bai ditut begiak, ni dena naiz begi, naiz sentikor, nahiz eta harri izan. Zer pentsatzen zenuen, harrizkoak ginela bihotz gabeak, kolpe guztien hartzale sentigabeak? ez maitiok ez (hau peloteo hutsa da) gu hadi gaude bakoitza bere lekuak. Neri tokatu zait zuen pisua ezagutzea, zuen zapatilen, boten, takoen, espartinen txirristra jasatea. Ez naiz kexatzen bainan gustatuko litzaidake izatea edozein lehiopoko harria, lore-ontzien euskarri, eta haize freskoa xurgatzea, itsasaldetik alde zaharreko kale-labirintoa zeharkatuaz gero enparantza honetara umilki eta gezalaren azken perlekin ailegatzen dena. Zuen gorputzen astuntasun-erdia eustea bakarrik eta kamisa-gabeko ukalondo pausatuen ikuimena sentitzea, eta noski, horrela askoz gehiago iraungo nukeen bainan agian ez nintzateke hain zuzenki hemen, kalean gertatzen diren berrietaz jabetuko. Ez naiz kexu, ez! Bainan barka, jarrai dezadan hemengo, enparantza honetako, nire atariko berriak emanaz. Hau saltsa! Ostirala animatzen hasia da, bazkalondoan jendea, langilea, lanean aritzen dena, ez ni bezalakoa, gero eta hurbilago ikusten du zamaren bukaera, ordu bi, ordu bat, lanarenak egin du! pentsatuko du gero alboko tabernara etorriko den batek baino gehiago!

Gazte batzuk, neska, jarri dira nere aurreko aulki txuri-luzean. Hiru dira eta hor ari dira kontu-kontari. Hadi egongo naiz haien berri jakin dezadan.

—Non erosi dituzu belarritako hoiek? Bai politak!

—Hor, beste kaleko bitxi-denda horretan. Korte pixka bat ematen dit sartza, bertako neska hain da kontrolatzailea! ez dizu begirik kentzen!

—Zuk daramazun itxurarekin, normala! kosto salmentaren diruarekin zindoa-zela pentsatuko zuen eh, Pekas?

—Kosto saldu ez, erre, erre egiten dut nik!

—Eta guk ere, eh kolega?

—Tori Gorri, egin ezazu «eder» bat.

—Bai txina majoa hauxe! Gaur aberats eta dohatsu etorri zaigu Pekas, eh Mixer?

—Aprobetxatu behar, horrelako egunak gutxitan izaten dira eta...

—Nola dijoa petardo hori! gero eta okerrago egiten dituzu Gorri. Zer dela eta?

—Esku-muturrean zauria dut, ez al duzue ikusten?

—Zer, mutilak orain jipointzen zaitu ala?, amodio teknika berriak?, esan, esan.

—Zoaz pikutara! Emaidazu sua, Mixer.

—Badakizue gaur zortziarekin manifestapena dugula? Bai, errefuxiatuen alde.

—Izango da saltsa orduan...

—Ni ez noa esku honekin.

—Zer bada, txakurrei muturrean joteko asmoa zenuen ala? Ezkerrarekin ere bota daitezke harriak.

—Bota ezazu zeuk nahi baduzu, ni banoa Akerbeltzeruntz eta.

—Ez zatoz orduan...

—Ez, bukatzen duzuenean, handik ibiliko naiz. Geroarte!

—Geroarte, prixtas, baina pasa porrua!

—Goazen Mixer, ea zer dagoen.

Enparantza erdi-hutsik geratzen da. Uso kakatiek jarraitzen dute koroatzen etengabeki harrizko danborilero-betilunaren txapel barregarria. Gazte batzuk pasatzen dira pankarta batzuekin Bulebar aldera.

Ahaztua nuen, azken bolada honetan Ostiralak nahiko beroak izaten zirela. Beno, mementuz bakarti geratu naiz enparantzan, hau aspergarritasuna! Ikusi ez, entzun egin behar gehiago oraingo honetan. Bulebarra gertu dago eta primeran jasoko ditut hango gertakizunak telebistaz ez bainan bai irratiz. Oihuak entzuten

dira, manifestariarenak noski, eta orain tiroak, tiro ugariak eta jendea arrapaladan, norbaitek bultzatuko balio bezala. Buletik datozen bi kaleetatik lasterka dator atzeraka begiratuaz. Gehienak kalean gora dijoaz eta bakan batzuk geratu dira enparantza aldean harrika, Buleruniz. Oihuak nonahi entzuten dira.

—Txakurrak hormara! ¡Cabróns!

Eta berriro tiroak, kezko poteak.

Laket zaidan lehioko lore-ontzi bat tiro batez lehertzen da eta bertan behera erortzen. Mutil batzuen ondoren datza orain lore-ontzia zena. Zabor-ontziak, poltsak, botatzen dituzte kale-ahora barrikada gisa. Gomazko pilotak etxe bien hormen kontra behin eta berriro joka, joka, joka... Kezko pote gehiago.

Azken gazteak alde egiten dute Narrika kaletik. Haietariko neska bat ataria dator lasterka bizian. Nire gainean une bat pausatzen denean, oinetan nabaritzen dut bihotzaren dardar-taupadak, lehertzera dijuela dirudi. Begiratzen du instant batean ezkerraldeko kalera eta barrura sartzen da. Eskilarak igotzerakoan zarata bidertzen da eta bapatean, bigarren pisuan edo, desagertzen.

—¿Has visto a esa perra? Me ha parecido que se ha metido a la plaza. En algún portal de estos andará. Tú mira los bares.

—¡Vamos!

—Como la agarre... me ha atinado una pedrada en la rodilla la muy jodida. ¡Puta vasca!

—Ni ere ixilik nengoentzako normalki dudan pultsu ia somaezina txikiagotuz, eta nere harri poroetatik hartzen dudan arnas ahula, ahulagotuz arego. Konturatzentz ba zen ni azpian bizirik nengoela!

Esku batean fusila, buruan kaskoa, bota beltzak, jantzi marroia, ba dijua es-kurrutekoia beheruntz bultzatzen ateira irekitzeko. Ba du hanka bat barruan eta hadi dago ea zerbait apartekoa entzuten den atarian barrena. ¡Nos vamos! oihuak ikaratzen hain konzentratua zegoena, eskuturrekoia bapatean utzeraziz eta azken begirada boteaz goruntz, jarraitzen die atari aurretik pasatzen direnei.

—Vamos a entrar en los bares de esta calle a buscar vasquitos para la cena.

—Hori esatean, harrikada laino bat erortzen zaie kale paraleloko kantoitik. Tiroka hasten dira berriro, noranahi eta harrikalarriengana hurbiltzen.

Gero eta jende gutxiago enparantzan: ni, beste harriak, eta danborileroa. Usoak aspaldidanik joanak dira leku seguro baten bila.

Gaua erortzen da emeki emeki, tiroak, harriak, oihuak nahastuz; noizbehinka buru batzuk lehio eta tabernetatik, berehala sartuz; lau hankako txakur arraza-gabea eskinak usaintzen bere botere lurrik mugatzeko eta usoak gero ta beherago planeatzuz, bere betiko sonbrero koloretsuan pausatu nahiean. Bulebarrean, azken orduetan isilik zirauen horretan, furgoien burrundarie aditzen da.

—¡Ya vale por hoy!

—Tenemos cinco en la jaula. Hoy no dormirán.

—Nosotros nos quedamos media hora más.

—Vale, nos vemos en el cuartel.

—Ezer kontatzekorik ez, uso bat pausatu da eta lumak harro-harro arratsaldean egin ez duen dantza borobil bat ari da aurkezten. Bizpahiru buelta sonbreru gainean alde batera, bestera. Inor agertzen ez dela ikusterakoan, gargara-orru batzuk egiten ditu eta gora begiratuaz, zero ilunerantz, hegaldada zaratatsuan teilatuen gainetik norabait doa, bere lagunen bila.

Atari barruan hala ere, tarteka egurrezko eskilara zaharren aienea entzuten da. Ez dago argirik, jeisten dena ez du astuna ematen marmarioak ez bait dira gogorrak. Azkenengo bi mailak jeitsi, sarrera oso isilik igaro, albaska bekokia estaltzen duen ile luze-kiskurrik, eskubiko begia ateko kristalaren kontra pausatzen du alde gustietara mugituz begiko ninia.

Arnasartzea geldiago dijoa orain. Eskuturrekoia mugitzen da zarata pixka bat atereaz. Hanka bat kanpora, gorputz erdi ere, begira, begira; zigarro bat piztu, eskuak oraindik dardaretan mantentzen dute pospoloa; lurrera doa, hankarekin zapaldu, haize bolada freskoa sartu biriketan, kalera lagunen bila.

—Agur neska, bihar arte.

EDU ZABALA

# OLERKIAK

## AURKEZPENA

Olerkigintzaren estratan  
sartu berria nauzue.  
Zeozer paratu nahiak nakar  
izkiriazaleen batzarrera,  
zeozer esan gurak  
ausardia damait gaur  
nahiz eta eskuak  
dardarra dagidan.  
Jakin badakit  
eskein diezazuekedanak  
apika  
asekaitz  
utziko zaituztela,  
diskurtso errena  
gerta dakizuekela  
baina bihotzak sinzeroki isuritakoa  
adiskideei aurkezteko hantzarak  
narama zuengana. Hori da.

## AGURKA

Agurka deslotu nintzaion  
amaren sabel gozoari  
laberinto beiraztu huntara  
hel nendin.  
Eskolarakoan hasperenka  
ate nagiaren zirristotik  
berari agur.  
Agurka haurtzaroari  
bizitzaren korronteaz  
gizartera nendin.  
Artizarra itzali zen,  
gidari nuenari agur.  
Agurka mintzatu nintzaion  
urrundutako anaiari,  
negar zotinka  
hainbat ametsi agur.  
Atzean da iragana  
inertzia narama gaur  
behingoz galgatuko nauen  
lurrerantz,  
betirako agurra orduan.

## IA OROK

Gosea, asealdia  
nekea, atsedena  
eskasia, sobera  
malkoak, algarak  
**MENPEKOTASUNA**  
bistaratu zitzazkidanean  
oldar bilakatu nintzen,  
ezintasunarekin gatazkan  
gudukatzen darraien  
oldar ezindua,  
piramidea errenkatu asmoz  
diharduen oldar adoleszentea.  
Ene ahuleziak iraul  
ahal baleza oraina  
geroan ernetuko litzake  
ordaina  
ia orok desiratzen duen  
haina.

## KAXERNARI

Txapela erantzirik  
agurtzen haut  
Euskal Herri,  
mota xuriz  
mota gorri  
berdetasunean bare.  
Arbasoen baratzari  
eusteagatik  
haukate  
makurturik,  
kimu ugalkor  
hizelako  
ondikotz loturik  
baina,  
hire odolaren garraz  
xuriaren eder argiz  
itxaropenaren uztaz  
irrintzia dantzugu gaur,  
gaur dantzugu irrintzia,  
dantzugu gaur irrintzia,  
.....!

JOXE JOAN UGALDE  
«MUNTTAR»

# “Soñu”

## JAIZKIBEL'KO BASATIA

---

Izen onek, noski, ez dio ezer esango irakurle gazteari; bañan zar-xamarra edo, obeto esateko, oso gazte ez diranak, Jaizkibel'ko basati aren izenaz, «Soñu» izenaz alegia, gogoratuko dirala uste dut.

1903 garren urtean, gutxigorabera, Jaizkibel mendiko artzaia ardiak faltatzen ari zitazkiela konturatu ziran. Ingurueta lapur bat ote zebillen jakiteko eta arrapatzeko zelatan jarri ziran, bañan alperrik, iñor ezpaizuten arkitzen.

Bein, itxas-aldeko arkaitzen ondotik zijoan baserritar batek aragi puska audi batzuek billatu zitun; makilletan sartuak, eguzkitan legortzen-edo. Ardi-larruak ere ikusi zitun. «Or ziok lapurra» esanaz artzaieri kontatzeria joan zan. Toki artara denak itzuli-ta, bertako leize-zulo battean bizardun gizontxo bat arrapatu zuten. Ura zan ardienean lapurra. Ura «Soñu» zan.

Ondarribira eramana, «Soñu»k bere bizia kontatu bear izan zun. Jaizkibel-mendiratu baño len, eskean zebillen erriz erri; bañan olako bizi moduaz asperturik, eta oso lotsatia ta bakartzale porrokatua zalako, mendi-bakarteratzea erabaki zuen. Lenbiziko egunetan arkaitzetan arrapatutako karramarro, lapa, lanperna, karraspio eta olako janariaz bizi zan; bañan bein ardi galdu bat eskuratu, ill eta jan ondoren... ez zun geio jakin nai izan itxas-ertzeko janari kaxkar aietaz. Geroztik, ardiak bakarrik. Eta gordiñak, keak salatu ez zezakion jabeari.

Au da, itz gutxitan, «Soñu»ren mendi-egonaldi ura. Orain lau urte «Soñu» bera billatu nuen nik Oyartzunen, eta berakin izandako **interviu** edo elkarritzeta kontatuko dizuet:

Oyartzun'go elizako aulki zar eta sendoetan, «Salbatore» Kristorean, agure bereizi bat ikusten dut igandero. Brusa beltz eta garbiaz jantxitako gizon txiki ta makurtua duzu, ixil eta musiña. Eskuan makil lodi bat darama eta eliz-barruan danean, eskapulayo aundia lepotik.

Uste nuen baserritar edo ganadu-saltzalle aberastua, diru-zale xurra eta azken orduko Santu-zale bat zala; bañan oker nengon. Egun batean gizon ori «Soñu» famatua zala esan zidaten, gaztearoan mendian basati ibilli izan zana.

Agure txukun au izan al diteke —nere baitan— 1903'gn. urtean Ondarribira jetxi zuten arlotte erdiero ta zarpatsu ura?

Asi nintzan galdezka errian eta laister jakin nitun orren berriak. «Soñu» ezagutu zuen oyartzuar batek auxe kontatu zidan: mendira baño len «Soñu» eskean bizi zan garai artan, eta tella-lantegi batean lo egiten zuen, laberako otearen gañean. Erriko aurrikara joaten zitzazkion bur-laka ta arrika. «Soñu»k uxatzen zitun, eskuan labain txiki batekin. Oso ariña omen zan. Gorputzez sendo, liraña, gomazkoa bezela. Elizan etzan belaunikatzen besteen antzera. «Soñu»k bi belaunak batean jartzen omen zitun lurrean, eskuaz lagundu gabe. Eta belaunak lurreratu ta bereala, tximista bezin arin, txutik. Noski, orrelako belauniketak ez zun egiten bere trebetasuna erakusteko, oitura zuelako baizik.

Joan dan igandean, Meza nagusiaren ostean, «Soñu» berakin itzegin det. Atsegin, apal eta zentzu aundiko gizona duzu. Bañan oso lotsatia ere bai, lotsatiegia. Izketan asi ta bereala aitzaki bat asmatu dizu nigandik aldegiteko:

—Bazkaltzera joan bear dut —esan zidan goizeko amaika ta laurdenetan.


Euskeraz bakarrik mintzatzen da. Erderaz ulertu, besterik ez. Erriko Gaxotegian artuta, ango mojak oso maiteki ta ongi zaindua dute. Mojaeri esker gure gizona geldi-geldi egon da une batean bere arpegia nik dibujatzeko. (**Interviu** bai apala nerea, fotograforik gabe.)

Prudenzio Oyarzabal eta Olaiz izenez. Jaizkibel mendian ogei ta sei urtetan baztertu zan, eta an sei illabete bizi, «Zezentegi» izeneko leize-zulo batean, itxas-ondoan. Orain 76 urte ditu. Nere ustez bere izaeragatik ez-ezik, beste zioagatik ere baztertu zan. Zergatik mendiratu zan galdetu nionean, irri-far lotsatiaz erantzun zidan ori apaizari bakarrik esan dezakiokela.

ANTTON VALVERDE «AIALDE»

«Zeruko Argia», 1958





# Arranoa

Doinua: Hamalau heriotzena.

— 1 —

Airearen hegoan, Arranoa egan.  
Etxean erbesteko, ura behar edan.  
Pausa lekurik nola, ez daukan aukeran.  
Historia oraindik, aurka bai du segan.  
Eskubide bideak, kobratuaz zergan.

— 6 —

Gau izartsu bateko, maite atsegina.  
Igeltseroen orma, ohean zurgina.  
Lorarik ederrenak, dituen jardina.  
Untzia kulunkatzen, den itxaz urdina.  
Eta untzi gainean, dagon ikurrina.

— 2 —

Nekatu ezinezko, txori bidaia.  
Soka lortutzen duzu, nahasiz mila hari.  
Artzaiaren txistura, ardia da adi.  
Nire sentimentuek, zu zaituzte kabi.  
Ilunaren ondoko, eguna senti garbi.

— 7 —

Goizean goiz, ernetzen, den eguzki printza.  
Lora eta zelaiak, hartzan duten ihintza.  
Oporretago egun, pasaren plangintza.  
Laborarien fruitu, langile ekintza.  
Arrantzaleen sare, zapalduen haintza.

— 3 —

Ahulezian indarra, ezinaren kemen.  
Ekaitzaren aurkako, zutabe nabarmen.  
Kontra esanen bil gai, gogoen hitzarmen.  
Eztabaiden lekuko, esperantza lerden.  
Bizkar jipoituaren, zentzu gaur ta hemen.

— 8 —

Zerutik zintzilika, dagoen izarra.  
Edo eta erreka aldeko, lizarra.  
Poeta kantariak, moztu dun bizarra.  
Testamentu zaharreko, itunen hitz zaharra.  
Hasier ta Amaian, urrezko pizarra.

— 4 —

Mendera ezingo den, kastaren erentzi.  
Pakezko ikus puntu, biren differentzi.  
Armen pakeak ezin, zaitzake irentsi.  
Egiazkoak behar, zaitu laister jantzi.  
Askatasun haizeen, betiko irrintzi.

— 9 —

Euskaldunentzat altxor, txit baliosoa.  
Etsaientzat etsaia, guk lagun gozoa.  
Bide bakarra dago, aurrera pausoa.  
Justiziaren alde, gudu erasoa.  
Arranoa zaitugu, pakezko usoa.

— 5 —

Errementariaren, auspo eta mailu.  
Burdin eskultura bat, arte lan isplu.  
Baieztapena edo, ukamen istilu.  
Politikan hotz-bero, mailan neurri gailu.  
Ametsik gozoenen, kutxaren gordailu.

— 10 —

Arranoa zuretzat, hainbat hitz potolo.  
Norbaitentzat negoke, buruz kili-kolo.  
Zure seaska hortan, binibili-bonbolo.  
Murgildurik nola ez, dugu egingo lo.  
Zu bai zara Euskadi, askean «sinbolo».

USAKUME

# Jaizkibelgo Txoria

---

*Jaizkibelgo txoria,  
gure herri gainetik  
egunero pasatzen den  
txoria,  
ia kasurik egiten ez diogun  
txoria.*

---

*Gauza asko dakizkik,  
gauza asko jasandituk.  
Egunero ikusten dituk militarrak  
kabiak egiteko gelditzen zaizkiken  
zuhaitz urriak deusezten.  
Urtero gorrotatzen dituk supiztaileak.*

---

*Baina, hik,  
protestatzen dakien txoria,  
gure txoria izanik,  
kanturik goxoenarekin  
protestatzen duk;  
Bizitzaren kentuarekin.*

---

*Jaizkibelgo txoria,  
gure herri gainetik  
egunero pasatzen den  
txoria,  
kasu egin behar diogun  
txoria.*

(J. AGIRRETXE)



